

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea


**IRAKASLEAREN IKUSPEGI PSIKOPEDAGOGIKOAREN
ERAGINA IDAZKETA PROZESUAREN HASTAPENETAN:
AVELLANEDA, ETORKIZUNA ETA EGUZKIBEGI IKASTETXEETAKO
KASUEN AZTERKETA**

Egilea: Mainer Olaeta López

Zuzendaria: Kepa Larrea Muxika

Leioan, 2014ko ekainaren 11n

© 2014, Mainer Olaeta



ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

LABURPENA	1
SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	2
1. MARKO TEORIKOA: AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA.....	4
1.1. Sarrera.....	4
1.2. Hizkuntza idatziaren ikaskuntzaren ikuspegi soziokulturala. Vigotsky	4
1.3. Hizkuntza idatzia	4
1.4. Hizkuntza idatziaren ikaste prozesua.....	5
1.4.1. Aurrekariak: metodo analitikoak eta sintetikoak	5
1.4.2. Egungo joera: konstruktibismoa	6
1.4.3. Glenn Doman metodoa	8
2. METODOLOGIA	11
2.1. Ikerketaren testuingurua	11
2.2. Ikerketaren helburua	11
2.3. Ikertutako hiru ikas zentroen zenbait ezaugarri.....	12
2.3.1. Ezaugarri komunak	12
2.3.2. Ezaugarri bereizgarriak	12
2.4. Ikerketa tresnak.....	12
2.4.1. Galdetegiak	13
2.4.2. Irakasleekin izandako elkarrizketak	13
2.4.3. Behaketak.....	13
2.4.4. Haurren idazkiak	14
2.5. Frogatu nahi diren hipotesiak	14
3. LANAREN GARAPENA	14
3.1. Ikerketaren garapen prozesua	14
3.1.1. Posta elektronikoa eta telefono bidezko kontaktua.....	14
3.1.2. Irakasleekin izandako hasierako elkarrizketak.....	15

3.1.3. Irakasleei pasatutako galdetegiak.....	15
3.1.4. Behaketak.....	15
3.2. Ikastetxeen ezaugarri metodologikoak	16
3.2.1. Avellaneda ikastetxea.....	16
3.2.2. Etorkizuna ikastola.....	16
3.2.3. Eguzkibegi ikastola	17
3.3. Ikerketa lagina	17
3.3.1. Irakasleen ezaugarriak.....	17
3.3.2. Ikasleen ezaugarriak.....	18
3.3.3. Gurasoen ezaugarriak.....	19
3.4. Lanaren gorabeherak	19
4. EMAITZAK	20
4.1. Erabilitako ikerketa tresnen emaitzen analisia.....	20
4.1.1. Idazketa... da	20
4.1.2. Idazketa prozesuaren hasierako pausoak	20
4.1.3. Eskolan sortutako testu motak eta materiala.....	21
4.1.4. Eskolako testuen sortzailea	21
4.1.5. Taldekatzeak	21
4.1.6. Aniztasunaren trataera helburuak zehazterakoan.....	21
4.1.7. Kaligrafia.....	22
4.1.8. Ebaluazioa	22
4.1.9. Hurrek egindako okerrak.....	23
4.2. Haurren idazkien analisia	23
4.2.1. Haurren idazketa maila: idazketa faseak.....	23
4.2.2. Haurren idazketa: alderdi figuratiboak.....	24
5. ONDORIOAK.....	25

5.1. Hurrek testu gidatuetan forma aldetik idazketa maila hobea aurkezten dute testu askeetan baino.....	25
5.2. Testu askeetan hurren idazketa maila autonomoa neurtzea zailagoa da, dispersio maila handiagoa delako.	26
5.3. Hurrek idazketaz egiten duten jabeakuntza prozesuan erabilitako metodologiak garrantzia handia duen arren, ikasketa prozesuan eragiten duten beste hainbat aldagai sozial ere badago.....	26
6. EZATABAIDA	28
7. ETORKIZUNARI BEGIRA IKERTZEKO BIDE BERRIAK	29
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	29
9. ERANSKINAK	31
9.1. ERANSKIN I: Metodologiaren inguruan irakasleei pasatutako galdetegia	31
9.2. ERANSKIN II: Metodologiaren inguruko galdetegietaik eskuratutako emaitzen taula.....	35
9.2.1. Galdera itxiak	35
9.2.2. Galdera irekiak	42
9.3. ERANSKIN III: Laginaren testuinguru soziolinguistikoaren inguruko galdetegia49	
9.4. ERANSKIN IV: Irakasleekin izandako elkarrizketetarako txantiloia.....	50
9.5. ERANSKIN V: Behaketa txantiloia	51
9.6. ERANSKIN VI: Hurren idazkiak	52
9.6.1. Avellaneda ikastetxea.....	52
9.6.2. Etorkizuna ikastola.....	72
9.6.3. Eguzkibegi ikastola	82
9.7. ERANSKIN VII: Hurren idazkietatik eskuratutako emaitzen taula	108
9.8. ERANSKIN VIII: Etorkizuna ikastolako (Amara Berri sistema) inprimategiko idazketa lana	110

**IRAKASLEAREN IKUSPEGI PSIKOPEDAGOGIKOAREN
ERAGINA IDAZKETA PROZESUAREN HASTAPENETAN:
AVELLANEDA, ETORKIZUNA ETA EGUZKIBEGI IKASTETXETAKO
KASUEN AZTERKETA**

Maidier Olaeta López

UPV/EHU

LABURPENA

Hurrek hizkuntza idatzia nola barneratzen duten eta irakasteko metodarik egokiena zein izan daitekeen inguruko eztabaida egon izan da aspalditik. Gai horri buruz, hurrek idazketaz egiten duten jabeakuntza prozesuan irakasleen ikuspegi psikopedagogikoez zer nolako eragina duten haurrengan ikertu dugu.

Ikerketaren alde kualitatibo eta kuantitatiboetara errepertorioz, metodologia berritzaileen aplikazio ezberdinak egiten dituzten Bizkaiko Avellaneda, Etorkizuna eta Eguzkibegi ikastetxeetan ikerketa sinkroniko bat eraman dugu aurrera. Lanerako lagina HHko etapako 5 urteko gelan dauden 55 ikasle eta 6 irakasle osatu dute.

Emaitzek adierazten dutenez, ikuspegi tradizionalen heziak dauden hurrek idazkeraren alde figuratiboetara ziurtasun handiagoa erakusten dute eta eredu eraikitzaileen hezitakoek, berriz, komunikazio gaitasun handiagoa dute. Eredu bakoitzak bere indar-guneak eta ahulguneak izateak zaildu egiten du eredu baten egokitasuna nabarmentzea.

*Idazketa, Haur Hezkuntza, eskola, irakaslearen ikuspuntu psikopedagogikoa,
metodologia berritzaileak*

RESUMEN

La polémica acerca de la manera en la que los niños interiorizan el lenguaje escrito y cuál es el mejor método de enseñanza ha existido desde siempre. Así, hemos investigado la influencia que ejerce el enfoque psicopedagógico del profesor en el proceso de aprendizaje del lenguaje escrito por parte del niño.

Se presenta una investigación cualitativa y cuantitativa, que se ha realizado llevando a cabo una investigación sincrónica en los colegios Avellaneda, Etorkizuna y Eguzkibegi de Bizkaia, los cuales aplican diferentes metodologías innovadoras. El grupo de muestreo lo han completado 55 estudiantes que están en la clase de 5 años de Infantil y 6 profesores.

Los resultados reflejan que los niños con los que se ha aplicado un planteamiento tradicional presentan mayor seguridad ante los aspectos figurativos del lenguaje, mientras

que los niños con los que se ha utilizado un planteamiento constructivista, muestran una mayor capacidad comunicativa. El hecho de que cada modelo tenga sus puntos fuertes y débiles, dificulta obtener conclusiones claras sobre la idoneidad de un único método.

Escritura, Educación Infantil, escuela, planteamiento psicopedagógico del profesor, metodología innovadora

ABSTRACT

It has always existed controversy about the way kids acquire written language and the best teaching method for it. In this study, it has been studied the influence of the teacher's psycho pedagogical perspective on the written language learning process of kids.

The investigation has been both qualitative and quantitative, and it has been carried out making a synchronous research in Avellaneda, Etorkizuna and Eguzkbeigi schools, located in Bizkaia, which apply different innovative methodologies. The sample group has been composed of 55 students (5 year old classroom) and 6 teachers.

The results indicate that kids that have been brought up with a traditional approach feel more confident about figurative aspects of the language, while the ones brought up with a constructivism approach develop more communicative skills. The fact that each one has its pros y and cons makes it difficult to decide which the most suitable one is.

Handwriting, Pre-school Education, school, teacher's psycho pedagogical perspective, innovative methodology

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gizakiok izaki sozialak gara. Jaio eta berehala, ezaugarri konkretuak dituen talde baten barnean hazten gara. Hala ere, talde batean jaiotze hutsak ez gaitu gizarteko kide bihurtzen. Gizarteko kide bilakatu behar dugu eta alfabetatzea da gizarteratzeko bidea gizarte moderno eta aurreratuetan. Lehengo garaietan haurren sozializazio prozesuan familiak funtsezko rola jokatzen bazuen ere, gaur egun –familiari garrantzia kendu gabe–, eskola da hein handi batean erantzukizunik handiena duen erakundea alfabetatzeari dagokionez. Horren garrantzia Bigas-ek azpimarratzen du, haurrak eskolan egingo duen ikasketarik garrantzitsuenetariko bat hizkuntza idatziaren ikaskuntza dela adierazten baitu, ondorengo ikasketa guztien oinarri izango dena (Bigas, 2000: 104-110 or.).

Hurrek hizkuntza idatzia nola barneratzen duten eta irakasteko metodori egokiena zein izan daitekeen inguruko eztabaida izan da –eta bada– aspalditik. Urteetan aintzat hartu diren hezkuntza paradigmek oinarrian izan dituzten printzipio psikopedagogikoen arabera, irakaskuntza eredu ezberdinak egon dira indarrean: “la letra con sangre entra” filosofiapean errepikapenean eta idazketaren alde mekanikoetan oinarritutako irakaskuntzatik, gaur eguneko eredu eraikitzaileira (Ibarra, 2009: 9-10 or.). Lan honetan

aztertutako metodologietatik eskuratutako emaitzekin, eztabaida honi geure ekarpena egitea dugu helburu. Horra hor gure ikerketak izan dezakeen interesa.

Gure lanaren gaia idazketaren irakaskuntzaranzko hurbiltze prozesuan HHn ematen diren hasierako urratsetan zentratzen da eta planteatutako hipotesiak, Vigotsky-ren ikuspuntu soziokulturalak eskaintzen duen markoari jarraituz formulatu dira:

A la luz de esta concepción social del aprendizaje y de su contribución al desarrollo, está claro que el desarrollo no se puede concebir como un logro individual. [...] el papel crucial de los miembros más expertos de la cultura al ofrecer una guía y una ayuda que permiten al estudiante convertirse en un participante cada vez más competente y autónomo en las actividades en las que toma parte (Wells, 2001: 297 or.).

Ikuspegi horrek, ezagutza sozialaren bereganatze prozesuan helduak duen bitartekari lana aitortzen du, berak menperatzen baititu hizkuntza idatziaren tresna kulturalak, Garapen Hurbileko Eremuari eraginez (Bilbatua, 2010: 2, 10 or.).

Marko honetan garrantzi berezia hartzen du haurra jartzeak idazketa erabiltzeko egoera errealetan, ahalik eta testu mota gehienekin kontaktua izan dezan. Izan ere, idazketarako beharrezkoak dituen gaitasun formalak eta instrumentalak egoera komunikatibo errealetan parte hartuz garatuko ditu. Hauetariko gaitasun bakoitzari ikaste prozesuan ematen zaion garrantzia izan ohi da idatzizko hizkuntza irakasteko metodologia nagusiak bereizteko aldagaien iturburua (Bilbatua, 2010: 2, 10 or.).

Hizkuntza idatziak haurren ikasketa prozesuan duen garrantzia dela eta, idazketa prozesuan haurrek ematen dituzten urratsetan eta eskuratzen dituzten emaitzetan irakasleak erabilitako metodologiak zer nolako eragina duen aztertu nahi izan dugu, haurraren ikasketa prozesua oztopatu gabe erraztu eta gidatu nahi dugun neurrian (ikus I., II., III eta IV. eranskinak).

Gai honekiko interesa, iaz Kepa Larrea irakaslearekin jorratutako *Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika* irakasgaiarekin batera piztu zitzaigun. Gai honetan sakontzeko aukerarik galdu nahi izan ez dugunez, GALEko lanak honetarako eskaini digun abagune paregabea aprobetxatu dugu.

Honetarako, otsailetik maiatzera bitartean luzatu den ikerketa sinkroniko bat egin dugu ez-zorizko lagin bat hautatuz: metodologia berritzaileen aplikazio ezberdinak egiten dituzten eta hiri barruan kokatuta dauden Bizkaiko Galdakaoko Ikastolen Elkarteko Eguzkibegi ikastola kontzertatua (Urtxintxa metodoa), Abanto eta Zierbenako Etorkizuna ikastola

publikoa (Amara Berri sistema) eta Sodupeko Elizbarrutiko ikastetxeen partaide den Avellaneda ikastetxe kontzertatua (Doman metodoa).

1. MARKO TEORIKOA: AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA

1.1. Sarrera

Gure ikerketaren marko teoriko eta kontzeptuala hiru zati nagusitan banatu dugu. Lehenengoan, Vigotsky-ren ikuspuntu soziokulturalaren ekarpen nagusiak azaldu ditugu, aztertutako Amara Berri, Doman eta Urtxintxa metodoen oinarrian dagoen teoria baita. Bigarrean, hizkuntza idatzia eta idaztea zer diren inguruko ikuspuntu osatu bat aurkeztu dugu. Hirugarren eta azken atalean, hizkuntza idatziaren irakaskuntzaren aurrekariak eta egungo joerak laburtu ditugu, konstruktibismoaren eta Doman metodoaren irizpide metodologikoetan arreta berezia jarritz.

1.2. Hizkuntza idatziaren irakaskuntzaren ikuspegi soziokulturala. Vigotsky

Teoria soziokulturalaren ekarpen esanguratsuenetariko bat, ikasketa prozesuaren eta elkarrekintza sozialaren artean ezartzen duen harremana da. Vigotsky-k proposatzen duen elkarrekintza bidezko ikasketa prozesuan, haurrak aurrera pausuak eman ditzan bera baino adituagoak diren helduen edota umeen laguntza ezinbestekoa du, beti ere elkarrekintza hauek Garapen Hurbileko Ereduak sortzen badituzte (Bilbatua, 2010: 11, 22-24 or.; Carrera eta Mazzarella, 2001: 42-43 or.; eta Wells 2001: 297-298 or.).

Ingurunearekiko harremanean haurrak burutuko duen ikasketarik garrantzitsuenetariko bat hizkuntzaren jabetasuna da: batetik, komunikazioa ahalbidetzen duelako pertsonen arteko harremanak bideratuz eta bestetik, pentsamendua garatzen duelako jarduerak irudikatzea ahalbidetuz (norberaren eta besteen ekimena erregulatu, etor daitekeena aurreikusi, e.a.) (Bilbatua, 2010: 15 or.; Bigas, 2000: 119 or. eta Larrea eta Maia, 2010: 93-94 or.).

1.3. Hizkuntza idatzia

Ikerketa haurren idazketaren jabetasuna prozesuaren hastapenetan zentratuta dagoenez, hizkuntza idatzia zer den argitzea komenigarri ikusi dugu.

Ikuspuntu eraikitzaile batetik, hizkuntza idatzia objektu soziokulturala da, gizartean dauden komunikazio beharrak asetzeko erabilia. Askotan ahozkoa transkribatzeko kodetzat hartua izan den arren (Ferreiro, 1986), berezko esanahi osoa duten enuntziatu

linguistikoak irudikatzeko tresna da. Hortaz, ekoiztutako testuak beti erabilera eta funtzio soziala izan behar ditu, testuinguruak ematen baitio zentzua esandakoari edota idatzitakoari (Bigas, 2000: 112, 119-120 or.; Correig, 2000: 146-147 or. eta Larrea eta Maia, 2010: 93-102, 108 or.).

1.4. Hizkuntza idatziaren ikaste prozesua

Hizkuntza idatziaren ikaste prozesuan, hainbat izan dira garaiaren arabera nagusitu izan diren metodologiak.

1.4.1. Aurrekariak: metodo analitikoak eta sintetikoak

XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan ikaskuntzaren gaineko praktika eta hausnarketa gai nagusi izan ziren (Bilbatua, 2010: 55 or., eta Ibarra eta Bereziartua, 2011: 18 or.).

a) Metodo sintetikoak

Goranzko metodoak dira, hizkuntzaren unitate minimoetatik abiatuta (grafemak, fonemak), zatirik konplexuenak aztertzeraz (esaldiak, testua) jotzen baita. Akatsak saihestearren, zailtasunak gradualki aurkezten dira. Metodo sintetikoaren azpian teoria konduktista dago, ikaskuntza haurren gaitasun mailara mugatzen baita. Oso lotuta dago irakurketarako heldutasunaren ideiarekin. Metodo sintetikorik ezagunena, Montessori metodoa da. Helburua mezua dekodifikatzea denez, ulermena bigarren maila batean uzten da. Bai irakurtzea zein idaztea, jarduera mekaniko gisa ulertzen dira (Fons, 2000: 172 or.; Larrea eta Maia, 2000: 123 or. eta Ibarra eta Bereziartua, 2011: 10,16-21 or.).

b) Metodo analitikoak edo globalak

Beheranzko metodoak dira, unitate handienetatik abiatuta (esaldiak edo hitzak) unitate minimoetara (grafemak) jotzen baita. Eskola Berria deitutako metodo berritzaileekin lotzen da, orokortasunaren eta interesaren printzipioetan oinarrituta planteatzen baita. Metodo analitikorik ezagunenak, Decroly-ren metodo globala eta Freinet-en metodoak dira. Egoera komunikatibo errealak bilatzen dituzte irakurketa eta idazketaren hasierako urratsetan eta egoera erreal horiek dira ikaskuntzan erabiliko diren testuen iturri (Bilbatua, 2010: 55-56 or.; Fons, 2000: 172-173 or.; Larrea eta Maia, 2000: 123-124 or. eta Ibarra eta Bereziartua, 2011: 25-32 or.).

1.4.2. Egungo joera: konstruktibismoa

Aurreko irakurketa metodoak atzean utzita, Anna Teberosky-k, Emilia Ferreiro-k eta Liliana Tolchinsky-k egindako ikerketak oinarri hartuta, irakurketa eta idazketa prozesuak ikuspegi konstruktibista baten arabera birplanteatu nahi dira. Ikuspegi honen arabera, garrantzia handiagoa ematen zaio ikaslearen ikasketa prozesu aktiboari, jarrerei eta ikasleek beraien ezagutzak eraikitzen dituzten moduari, edukien eta kontzeptuen pilaketari baino. (Bilbatua, 2010: 57 or.; Díaz de Ulzurrun, 1999: 9-10 or.; Ibarra eta Bereziartua, 2011: 37-38 or.). Urtxintxa proiektuan ideia hau oso modu esanguratsuan batzen da: “Irakaskuntza aktiboaren printzipio nagusiaren arabera, norberaren ekintza da ikaskuntzaren oinarria” (Mendizabal, Saenz eta Oiarbide, 2011: 30 or.).

a) *Ikaslearen rola*

Haurrak bere ezagutza ikasgaiarekiko harremanen bitartez eraikitzen du, ezagutza berrien eta alde zurretik zituen ezagutzen arteko loturak ezarriz (Anaut, 2004: 24, 26 or. eta Mendizabal, Saenz eta Oiarbide, 2011: 14, 17 or.). Haurrak horretarako, bere eskemak zalantzan jarraraziko dizkion gatazka kognitiboak beharrezko ditu, aurreko eskemak eraldatzen eta ezagutza berriak eraikitzen joatea ahalbidetuz. Prozesu honetan egiten dituen akatsak, Liliana Tolchinsky-k eta Rosa Simó-k (2001) ikaskuntza bidean ematen dituzten aurrerapausoak bezala ulertzen dituzte (Bilbatua, 2010: 58; Fons, 2000: 158-159 or.; Díaz de Ulzurrun, 1999: 19 or.; Larrea eta Maia, 2010: 116-117 or. eta Oihartzabal, 1996: 23-24 or.).

b) *Irakaslearen rola*

- **Ikasketa esanguratsua:** irakaslearen rola haurren ikasketa prozesua errazteko baliabideak eskaintzearena da, informazioaren jabe izatetik, haurren ikasketa prozesuaren bideratzaile izatera pasatuz eta Garapen Hurbileko Eremuak sortuz. Honetarako, haur bakoitzaren aurretiazko ezagutzak zeintzuk diren jakitea beharrezkoa du, dakienaren eta irakasten zaion eduki berriaren arteko zubia eraiki dezan (Bilbatua, 2010: 22-24 or.; Fons, 2000: 158-160 or.; Carrera eta Mazzarella, 2001: 43 or.; Larrea eta Maia, 2010: 116-117 or. eta Wells, 2001: 297-298 or.).

- **Taldekatzeak:** Vigotsky-ren ekarpenetan oinarrituz, ikasle-irakasle eta ikasleen arteko elkarreragina eta lan kooperatiboa errazten duten taldekatze mota ezberdinez baliatu behar du irakasleak: talde handia, talde txikia, bikotea edota bakarka (Bilbatua, 2010: 27 or.; Fons, 2000: 185-188 or.; Díaz de Ulzurrun, 1999: 17-18 or.).

- **Ebaluazioa:** ebaluaketak prozesu erregulatzailerak izan behar du. Amara Berriko Loli Anautek (2004: 100, 175 or.) eta Urtxintxako Mendizabal, Saenz eta Oiarbidek (2011: 76 or.) azpimarratzen duten bezala, hezkuntza jarduna aldatu edo doitzeko tresna izan behar du, zeinak haurren emaitzak, jarraitutako prozesuak eta erabilitako ikaste-irakaste estrategiak aztertzeaz gain, irakaslearen hezkuntza jarduna aztertzen duen ere (Fons, 2000: 203, 208-211 or.).

c) Hizkuntza idatziaren jabeakuntza konstruktibismoaren ikuspuntutik

Ikaste-irakaste prozesu arrakastatsu bat aurrera ateratzeko, ikasleak irakurketa eta idazketa erabiltzeko egoera errealean aurrean jartzea ezinbestekoa da, ahalik eta testu mota gehienekin kontaktuan jarritz (oharrak, ipuinak, gutunak, e.a.). Urtxintxa metodoak Ferreiro eta Teberosky-k deskribatutako ontogenesiaren garapenaren ildoari jarraituz, hizkuntza idatziaren trataera orokorra proposatzen du, hurrei idatzizko komunikazio esperientzia askotarikoak eta funtzionalak eskainiz, eta horien inguruko hipotesiak eta hausnarketak garatzen lagunduz, idazketaren barne-egituraz jabe daitezkeen bidea erraztuz (Bilbatua, 2010: 57-64 or.; Fons, 2000: 169-171, 173-174 or.; Larrea eta Maia, 2010: 135-136 or. eta Mendizabal, Saenz eta Oiarbide, 2011: 37 or.).

d) Idazketaren faseak

Emilia Ferreiro eta Ana Teberosky-k haurrek ohiko idazketara iritsi aurretik jarraitzen dituzten faseak deskribatzen dituzte (Bilbatua, 2010: 58-60 or. eta Mendizabal, Saenz eta Oiarbide, 2011: 39 or.):

1. fasea: Imitazioaren fasea. Idazketaren zenbait ezaugarriren erreprodukzioa agertzen da. Haurrak oinarrizko idazkera gisa identifikatzen dituen ezaugarri ohikoenak erreproduzitzen ditu: grafismo primitiboak, biribilak, makilatxoak, e.a.

2. fasea: Idazkera berezia (ideografikoa). Gauza desberdinak irakurri ahal izateko idazki ezberdinetan, desberdintasun objektibo bat egon behar du: letren konbinazio ezberdinak esanahi ezberdinekin, letra kopuru ezberdinen erabilera esanahi ezberdinak sortzeko, e.a.

3. fasea: Idazketa silabikoa. Hipotesi silabikoaren agerrera. Soinuzko silaba bakoitzari, idatzizko balio bat ematen diote: bai bokalez zein kontsonantez adierazia.

4. fasea: Idazketa silabiko alfabetikoa. Hipotesi silabikotik alfabetikorako igarotzea. Hipotesi silabikoaren eta gutxieneko grafia kopuruaren beharraren hipotesien

eta inguruneak proposatzen dizkion forma grafikoen eta hipotesi silabikoaren arteko gatazkaren ondorioz, silaba bakoitzeko grafia bat baino gehiago idazten ditu.

5. fasea: Idazketa alfabetikoa. Haurrak, fonema-grafia lotura egina du eta idazten dituen hitzen fonemen soinuaren analisi sistematikoa egiten du.

1.4.3. Glenn Doman metodoa

Doman Irakurketa Goiztiarra Metodoaren sortzailea, Glenn Doman (1919-2013) fisioterapeuta estatu batuarra da. Temple Fay neurologoarekin batera, garun kaltea zuten haurren tratamenduaren inguruan lan egiten eman zituen bere lehenengo urratsak. Horren tratamenduak jarduera eta mugimendu sistematikoen errepikapenean oinarrituak daude (Doman, 2007: 2 or. eta Macias, 2010: 2or.).

Metodo hau haurren gaitasunak ahalik eta gehien aprobetxatzean oinarritzen den neurrian, ezinbestekoa bilakatzen da modu goiztiarrean hastea eta sistematikoki lan egitea. Garunaren gehienezko plastikotasuna 9 hilabete eta 4urte bitartean gertatzen denez, haurra 2-3 urte inguru aldera irakurketarekin has dadin proposatzen du. Modu goiztiarrean egiten den ikasketa prozesu honek milioika neuronon arteko lotura berri eratzea ahalbidetuko dio haurrari, ondoren gauzatuko dituen ikasketa guztietarako bidea erraztuz (Corral, 1997: 82 or. eta Doman, 2007: 23, 50-52, 55, 66 or.).

Maiztasunari dagokionez, bereizketa bat egin behar da jarduera motaren arabera. Biten lanketan, 5 minutuko iraupena duten 3-4 saio burutzen dira egunean. Saioen dinamika beti bera da: haurrari letra mota, tamaina, letra arteko tarte eta kolore konkretu batez idatzitako (ikus 1. irudia) 5 sortetako hitzak aurkezten zaizkio egunean, aste bukaerarako 25 hitz aurkeztuz haurrei. Irakurketa txartelei dagokionez berriz, 10 minututako iraupena duen saio bakarra burutzen da egunean. Irakasleak bai bitak bai irakurketa txartelak banan-banan abiadura handiz pasatzen ditu (1-2 s.), hauetan jartzen duena ozenki irakurritz. Helburua, haurrak hitza modu globalean ikus dezan beharrezkoa duen denbora baino ez ematea da, hitz barruko letretan arreta jartzeko denborarik izan gabe. Txartelak hainbatetan ikustearen poderioz, bertan jartzen duena modu globalean identifikatzen joango da haurra (Corral, 1997: 84-85 or. eta Doman, 2007: 67-70 or.).



1. irudia. Irakurketa txartelen egitura

Metodo honek gelan landutakoa etxean birpasatu eta finkatu behar dutela dakar, gurasoen aldetik izugarritzko inplikazioa eta esfortzua eskatuz. Joko bat bailitzan aplikatu behar dute, haurra motibatuta egon dadin eta gogoz har dezan (Corral, 1997: 83, 88 or.; Doman, 2007: 62-63, 66, 90-94 or. eta Macias, 2010; 2 or.).

Askotarikoak izan diren arren kontsultatu ditugun iturri bibliografikoak, ezinezkoa izan zaigu hainbat datu eskuratu ahal izatea. Hau dela eta, Avellaneda ikastetxean izandako elkarrizketa eta gauzatutako behaketak izan dira gure informazio iturri nagusiak.

a) Ikaslearen rola

Haurrak duen rola hein handi batean pasiboa da, bere parte hartze mailarik gorena irakasleak erakutsitako txartel ezberdinen errepikapenera mugatzen baita. Biten lanketan, haurrak rol guztiz pasiboa jokatzen du, irakasleak erakutsitako txartel ezberdinak ikusi baino ez baititu egin behar eta. Irakurketa txartelen lanketan berriz rol aktiboagoa jokatzen duen arren, neurri handi batean rol pasiboa izaten jarraitzen du, irakasleak fitxak erakutsi ondoren, hauek gogorarazten eta errepikarazten baitzaizkio. Oroimen ariketa da, nahiz eta nolabaiteko feedback-a dagoen. Haurrak irakurtzeko eta idazteko beharrezkoak dituen gaitasunak, imitazio, errepikapen eta errefortzuaren bidez garatuko ditu.

b) Irakaslearen rola

Metodo honetan irakasleak duen rola funtsezkoa da, bera baita informazioaren eta ezagutzaren antolatzailea eta hori transmititzearen arduraduna. Irakasleak erabakitzen du zer, nola eta noiz irakatsi behar den.

- **Ikasketa esanguratsua:** txarteletako hitzak haurrentzako ahalik eta esanguratsuen izan daitezen, hauengandik hurbil dauden gaiak aukerazten saiatzen dira, interesgarriak izan daitezen eta bere arreta piztu dezaten (Corral, 1997: 88 or.).

- **Taldekatzeak:** irakasleen ezagutzen transmisioan oinarrituta dagoen metodo bat denez gero, talde handia talde osorako azalpenak eta jarduerak burutzeko erabiltzen da, ondoren azaldutakoaren gainean bakarkako lana jorratu ahal izateko.

- **Ebaluazioa:** Doman metodoan, ebaluazio erregulatzailea erabiltzen dute. Erregulatzaile kontzeptuak, aldaketa bat inplikatzeko du. Metodo honetan erantzun zuzenak lehenesten direnez, hauen bilaketan, ikasleengan jarrera aldaketa bat bilatzen da. Metodoaren errepikagarritasuna, aldaketa horien bilaketan oinarritzen da (ikuspuntu horretatik interpretatu daiteke ebaluazioa erregulatzailea dela).

c) Hizkuntza idatziaren jabekuntza Glenn Doman metodoaren ikuspuntutik

Avellanedako HHko 5 urteko geletako tutoreek jakinarazi digutenez, Doman metodoa irakurketaren irakaskuntzan zentratzen da, idazteko, lehenbizi haurrak oinarrizko trebetasunak garatu behar dituela uste baitute. Bi dira irakurketa lantzeko jorratzen dituzten jarduerak:

- **Bitak**

Lau irakurketa fase ezberdin daude eta hauetariko bakoitzean, metodoak berak landu beharreko kategoriak zehazten ditu. Letra xeheetatik hasia proposatzen den arren, Avellaneda ikastetxean letra larriekin hasten dira, letra xeheak irakurketaren fase guztiak gainditutakoan jorratuz (Corral, 1997: 85-87 or. eta Doman, 2007: 67-88 or).

1. fasea: familiarekin (aita, ama, e.a.), eguneroko bizitzarekin (panpina, puzzlea, e.a.), objektuen nolakotasunekin (altua, tristea, e.a.) eta abarrekin lotutako hitz bakarreko sortak aurkezten zaizkio haurrari. Gutxi gora behera 200 bat hitz dituenean, hurrengo fasera pasatzen da.

TXIMUA

2. irudia. *Irakurketaren 1. fasea*

2. fasea: izen eta izenondo batez osatutako bi hitzetako txartel sortak erakusten zaizkio haurrari (mutil alaia, triziklo gorria, e.a.).

3. fasea: 3, 4, eta 5 hitzez osatutako lehenengo esaldiak aurkezten zaizkio haurrari. Lehendabizikoz aditzak, determinanteak, deklinabide atzizkiak, e.a. agertzen dira. Esaldi horiek, aldeztatik landuta dauden hitzekin osatuak daude.

POLTSIKORIK GABEKO KAMISETA

3. irudia. *Irakurketaren 3. fasea*

MARRUBIZKO IRABIAKIA EDAN DUTE.

4. irudia. *Irakurketaren 3. fasea*

4. fasea: ipuinak irakurtzen hasten dira, esaldi sinpleekin eta ezagunak zaizkien hitzekin osatutakoak (hasieran). Letra larriz lehenengo eta xehez ondoren.

- **Irakurketa txartelak**

Bitez gain, modu paraleloan irakurketa txartelak lantzen dira. Txartel hauen lanketa ez du metodoak proposatzen. Irakurketa finkatzeko helburuarekin, irakasleek eurek sortutako jarduerak dira, Domanen arauak errespetatuz jorratzen direnak. Hauek, landu nahi diren

letra konkretuak lantzeko erabiltzen dituzten hitz bakarreko txartelak dira. Okerrak saihesteari garrantzia handia ematen zaionez, bit hauean aurkeztutako hitzen letrak errazenetik zailenera ordenatzen dira, dekodifikazioa beste helbururik ez duten testuingururik gabeko testuetan. Bitetan aurkezten diren hitzak, ikasitako letrez soilik osatutakoak izaten dira. Adib: 3 urteko gelan *mamua*, *momia* e.a. bezalako hitzak aurkezten zaizkie, bokalak, *m* eta *t* baitira ezagutzen dituzten letra bakarrak eta 5 urteko gelan ia edozein hitz aurkezten da: *puxika*, *poxpola*, e.a. jada letra gehienak ezagutzen baitituzte.

2. METODOLOGIA

2.1. Ikerketaren testuingurua

Ikerketa hau, idazketaren hastapenetan umeengan gertatzen diren hasierako urratsen testuinguruan kokatzen da. Horretarako, metodologia berritzaileen ikuspegiaren inguruan aplikazio ezberdinak egiten dituzten Bizkaiko hiru ikastetxe aukeratu ditugu: Doman metodoko Avellaneda ikastetxea, Amara Berri sistemako Etorkizuna ikastola eta Urtxintxa metodoko Eguzkibegi ikastola. Ez-zorizko lagina izan da aukeratu duguna.

Metodologia izan ezik, ezaugarri berdintsuak dituzten zentroak eta haurrak aukeratu ditugu, eskuratutako emaitzetan metodologiak duen eragina isolatu ahal izateko. Dena den, badakigu hurrek hizkuntza idatziaz egiten duten jabeakunza prozesuaren arrakasta edo porrota ezin diogula metodologiari soilik egotzi, ikasketa prozesuan eragiten duten beste hainbat aldagai sozial eta linguistiko ere badagoelako: egoera soziolinguistikoa eta ekonomikoa, gurasoen inplikazioa eta eragina, haurren interesak, neba-arreba nagusirik duten edota haurren arteko hilabetetako adin aldea.

2.2. Ikerketaren helburua

Hurrek HHko etapa amaitzen dutenerako ikas zentro ezberdinetako irakasleen ikuspegi psikopedagogikoek hurrek idazketaz egiten duten jabeakunza prozesuan eta eskuratzen duten idazketa maila autonomoan zer nolako eragina duen ikertu nahi izan dugu, ikerketa sinkroniko bat eginez. Metodologia berritzailetzat hartutako hiru erabilera ezberdinen artean ea alde nabarmenak dauden aztertu nahi izan dugu.

2.3. Ikertutako hiru ikas zentroyen zenbait ezaugarri

2.3.1. Ezaugarri komunak

EZAUGARRIAK \ IKAS ZENTROAK		AVELLANEDA	ETORKIZUNA	EGUZKIBEGI
IKAS ZENTROEN TESTUINGURUA	KOKAPENA	Sodupe	Abanto-Zierbena	Galdakao
	INGURUNEA	Hirurak ingurune industrializatuak eta oso urbanoak dira. Hortaz, ingurune alfabetatuen testuinguruan kokatzen dira eta hiruretan bermatuta daude oinarritzko zerbitzuak zein hiriburu eta herri handiagokiko komunikazioak. Denak daude Bilbotik 7-15km-tara, Bilbo Handiko eskualdean.		
	EGOERA LINGUISTIKOA	Galdakao, Abanto-Zierbena eta Sodupe baino herri euskaldunagoa den arren, denak ingurune erdaldunak dira, gaztelania nagusi izanik hiru herrietan.		
IKAS ZENTROEN ZENBAIT EZAUGARRI	HIZKUNTZA EREDUA	Hirurak ikas zentro elebidunak dira, D ereduak.		
	HEZKUNTZA PARADIGMA	Metodologia berritzailetzat hartzen dira denak, bakoitzak bere metodologia ikuspuntu ezberdinez aplikatzen duen arren.		
	FAMILIA ETA IKAS ZENTROEN PERFLA	Bakar bat ere ez da eliteko ikas zentroa, denak herriko ikastetxe arruntak dira. Bertan eskolatutako haurren familien maila sozioekonomikoa ere, erdi mailakoa da.		

2.3.2. Ezaugarri bereizgarriak

Ezaugarri komunak nagusi diren arren, bakoitzaren bereizgarri diren ñabardura batzuk ere badituzte.

EZAUGARRIAK \ IKAS ZENTROAK		AVELLANEDA	ETORKIZUNA	EGUZKIBEGI
IKAS ZENTROEN ZENBAIT EZAUGARRI	IZAERA LEGALA	Kontzertatua (Elizbarrutiko Ikastetxea)	Publikoa (Euskal Eskola Publikoa)	Kontzertatua (Ikastolen Elkarte)
	METODOLOGIA	Doman metodoa	Amara Berri sistema	Urtxintxa metodoa

2.4. Ikerketa tresnak

Ikerketan frogatu nahi diren hipotesiek, ikasgelako egoera errealean gertatzen diren datu zehatzak jasotzea eskatu digute. Haurrek idazketaren hastapenetan ematen dituzten

urratsak eta jarraitzen dituzten prozesuak baloratu ahal izateko, bai ikerketa kualitatiboaren bai kuantitatiboaren prozedurak erabili ditugu:

2.4.1. Galdetegiak

a) Metodologiaren inguruan irakasleei pasatutako galdetegia

25 galderaz osatutako galdetegia luzatu diegu ikerketan parte hartu duten 5 irakasleei eta ikasketa buruari (ikus I. eranskina). Honetan, atal nagusi 2 bereiz daitezke: identifikazio datuak eta galderak. Planteatutako galderetatik, 16 itxiak izan dira –“X” batez aukeratzekoak edota 1etik 10era baloratzekoak– eta gainontzeko 9ak, nork bere iritzia araberako erantzuna emateko galdera irekiak, nahiz eta hauek labur eta arin erantzutekoak izan diren. Galdetegia tresna kualitatibo eta kuantitatiboen prozedura gisa erabili dugu, mota bietako datuen eskuraketara zuzendutako galderak diseinatu baititugu.

b) Laginaren testuinguru soziolinguistikoaren inguruko galdetegia

Lagina osatzen duten inkestaren zenbait ezaugarri soziolinguistiko eskuratzeko: *Gurasoak, Ikasleak eta Irakasleak* kategorietan berezitatutako eta guztira 12 galderaz osatutako bigarren galdetegi bat diseinatu dugu tresna kuantitatiboen artean (ikus III. eranskina). Guztiak zenbaki edo portzentaje bidez erantzuteko galdera irekiak izan dira. Idazkia egin duten hauren tutoreak izan dira galdetegia bete dutenak.

2.4.2. Irakasleekin izandako elkarrizketak

Galdetegien eta behaketen bidez eskuratutako informazioa hobeto ulertu eta testuinguratu aldera, tresna kualitatiboen artean Avellaneda eta Etorkizuna ikastetxeetan elkarrizketa bana izan ditugu (Eguzkibegi ikastolan ez, bertan practicuma gauzatzeak zalantzak argitzeko eta galderak egiteko hainbat aukera eskaini baititu). Hauetan, jarraitutako metodologiaren inguruko hainbat galdera luzatu dizkiegu irakasleei, galdetegiko galderen ildo berdintsutik joan direnak (ikus IV. eranskina).

2.4.3. Behaketak

Behaketak izan dira jasotako informazioa geure begiekin egiaztatzeke izan dugun lehenengo aukera. Hortaz, ikerketarako prozedura kualitatibo garrantzitsu bat izan da. Gela ezberdinetan metodologiari dagozkion aspektu ezberdinak modu ordenatuan jasotzeko, txantilo bat erabili dugu (ikus V. eranskina).

2.4.4. Haurren idazkiak

Haurren idazkien azterketa egitea, idazketaren bilakaeraren inguruko ondorioak ateratzeko eta erabilitako metodologia ezberdinen eragina neurtzeko adierazlerik egokiena izan da.

Idazkietan, alde figuratiboak zein instrumentalak aztertu ditugu, prozedura kuantitatiboak eta kualitatiboak elkarren osagarri baitira. Alde figuratiboen artean: ortografia, erabilitako letra mota eta noranzkoa aztertu ditugu eta alde instrumentalen artean: planteatutako egoera komunikatiboan testu funtzionala sortzeko gaitasuna (ikus VI. eta VII. eranskinak). Ariketa honetarako, haur bakoitzari orri zuri bana eman eta *Kontatu asteburuan egin duzuen*a kontsigna izan da testuen ekoizpenerako abiapuntu.

2.5. Frogatu nahi diren hipotesiak

Ikerketaren ari gidaria izan diren eta azterketa testuingurua zehaztu duten hipotesiak ondokoak dira:

- Hurrek formatu itxiko testu gidatuetan –zeinetan idazketa mugatuagoa eta zuzenduagoa dagoen– forma aldetik idazketa maila hobea aurkezten dute formatu irekiko testu askeetan baino.

- Testu askeen idazketan hurrek dispersio maila altuagoa erakusten dute estu gidatuetan baino.

- Hurrek idazketaz egiten duten jabeakuntza prozesuaren arrakasta edo porrota ezin zaio metodologiari soilik egotzi, nahiz eta metodologiak garrantzia handia duen.

3. LANAREN GARAPENA

3.1. Ikerketaren garapen prozesua

HHn idazketaren inguruan ematen diren hasierako urratsak aztertzeko, hainbat baliabide erabili eta hainbat jarduera burutu ditugu.

3.1.1. Posta elektronikoa eta telefono bidezko kontaktua

Ikastetxeak aukeratuta, telefonoaren bidezko kontaktua egin dugu geure burua aurkezteko, ikerketaren helburua azaltzeko eta lehen bisita baterako eguna zehazteko. Lehenengo kontaktu horrez gain, ikerketan zehar ugariak izan dira posta elektronikoa bidez Etorkizuna eta Avellaneda ikastetxeekin izan ditugun harremanak, bai behaketa egunak adosteko, bai informazioaren elkarren trukaketarako. Eguzkibegin kontaktua zuzena izan da.

3.1.2. Irakasleekin izandako hasierako elkarrizketak

Avellaneda eta Etorkizuna ikastetxeetara egin dugun lehenengo bisitan hasierako elkarrizketa bat izan dugu. Hauek grabagailuarekin grabatu ditugu, datuen bilketa eta emaitzak atera ahal izatea errazteko. Elkarrizketak 50-90 minutu bitartekoak izan dira ikastetxearen arabera. Ikasketa buruarekin eta HHko 5 urteko gelako tutore bakarrarekin elkartu gara Etorkizuna ikastolan, eta HHko 5 urteko geletako tutore biek Avellaneda ikastetxeetan. Guztira bi elkarrizketa (ikus 2.4.2. Irakasleekin izandako elkarrizketak eta IV. eranskina).

Hasierako elkarrizketek galdetegiaren eskuratutako erantzunak hobeto ulertzea eta testuinguratzea ahalbidetu digute. Bide batez, galdetegiaren erantzundakoaren eta behaketetan ikusitakoaren arteko zenbait kontraesan antzemateko ere balio izan digute.

3.1.3. Irakasleei pasatutako galdetegiak

Lehenengo elkarrizketa horiek bukatuta, metodologiaren inguruko galdetegiak luzatu diegu, gure aurrean bete dutena (ikasketa buruak emailez bidali du). Guztira sei galdetegi bete dizkigute (ikus 2.4.1. a) *Metodologiaren inguruan irakasleei pasatutako galdetegiak* eta I. eranskina). Galdetegiaren informazio honek, metodologia ezberdinen nondik-norakoak ezagutzeko aukera eskaini digu.

Atal honetako 3.3. Ikerketa lagina azpi-atala bete ahal izateko, bigarren galdetegi bat luzatu diegu: *Laginaren testuinguru soziolinguistikoaren inguruko galdetegiak*. Hau idatzia egin duten umeen 3 tutoreek baino ez dute bete. Galdetegiak bidaltzeko eta jasotzeko kanala e-maila izan da Etorkizuna eta Avellaneda ikastetxeen kasuan (ikus 2.4.1. b) *Laginaren testuinguru soziolinguistikoaren inguruko galdetegiak* eta III. eranskina).

3.1.4. Behaketak

Behaketak egiteko tresnak sortzea ez zaigu lan erraza izan, idazten ikasteak hainbat estrategia integratzea eta hainbat arlotan arreta jartzea eskatzen baitu. Hortaz, gure behaketa lana arintze aldera, hasierako elkarrizketetan eta metodologiaren inguruko galdetegiaren itaundutako zenbait aspektutan jarri dugu arreta (ikus 2.4.3. *Behaketa azpi-atala* eta V. eranskina).

Informazioa jasotzeko behaketak 3 egunetan gauzatu ditugu: urtarrilak 31, otsailak 14 eta maiatzak 12 Etorkizuna ikastolan; otsailak 10, martxoak 3 eta maiatzak 15 Avellaneda ikastetxean eta otsailak 5, martxoak 4 eta maiatzak 7 Eguzkibegi ikastolan. Hala ere,

azken honetan informazio aberatsagoa eta osatuagoa jaso ahal izan dugu, bertan egoteak jasotako informazioa egiaztatzeko hamaika aukera eskaini baitigu.

3.2. Ikastetxeen ezaugarri metodologikoak

3.2.1. Avellaneda ikastetxea

Avellaneda ikastetxean, Glenn Domanek diseinatutako metodoa jarraitzen dute. Bere sortzaileak diseinatutako pauso multzo baten aplikazioan oinarritzen denez, ez dute bere burua inolako hezkuntza paradigmaren barruan kokatzen.

Irakurketa metodo bat den aldetik, idazketa prozesua, irakurketa prozesuaren jabe-kuntzaren ondorioa da. Irakurketa, irakurketa txartelen¹ eta biten bidez lantzen dute 3 urteko gelatik hasita (ikus Marko teorikoa ataleko 1.4.3. c. *Bitak eta Irakurketa txartelak* azpi atala) errazenetik zailenerako hurrenkeran, goranzko metodoen planteamenduari jarraituz: bokalak, *m* eta *t* kontsonanteak (3 urte), kontsonante gehienak (4 urte) eta kontsonanterik zailenak: *ts, tx, tz, j, f, r, s* (5 urte).

Psikomotrizitate gelan lantzen dituzten jarduera guztiak, irakurketarako beharrezkoak diren aurre baldintzen lanketara bideratuta daude: begirada finkatu (eskailera pasatzea), motrizitate fina landu (pintxoka egitea), e.a.

Irakasleentzat idaztea eredu konbentzionalaren arabera gauzatzen denez gero, haurren okerrak zuzentzen eta errepikatu arazten dituzte. Bost urteko gelan, letra xehez idazten hasten dira. Irakasleek aitortzen dutenez, nahiko eredu zuzendua da.

3.2.2. Etorkizuna ikastola

Abanto-Zierbenako Etorkizuna ikastolan, Amara Berri sistema erabiltzen dute. Darabilten sistemaren oinarriak konstruktibismotik hartuak dauden arren, ez dute bere burua konstruktibistatzat hartzen, hezkuntza sistema propio bat aldarrikatzen baitute. Teberosky-ren idazketaren inguruko ideiek ordura arte egindako lan guztia hankaz gora jartzen duela argudiatuta eta ildo tradizionalari jarraiki, garrantzia handia ematen diote aspektu formalen lanketari. Horrela, inprimategi txokoan kaligrafia, letra xehez idatzitako hizkien arteko lotura eta idazketaren noranzkoa lantzen dituzte. Hitza irudi bati lotua idazten dute,

¹ Irakasleek jorratu nahi dituzten letra konkretoak lantzeko sortutako txartelak dira. Hauetariko bakoitzean agertzen diren hitzak, haurrek ezagutzen dituzten letrez soilik osatutakoak dira. Letra ezberdinen aurkezpena errazenetik zailenerako hurrenkeraren arabera egiten da, dekodifikazioa beste helbururik ez duten testuak sortuz. Testuingururik gabekoak izan arren, haurren bizipenekin lotura duten hitzak aukeratzeko saiateren dira, haurrentzako hurbilak eta esanguratsuak izan daitezten. Adib: 3 urteko gelan *mamua* edo *momia* bezalako hitzak aurkezten zaizkie, bokalak, *m* eta *t* baitira ezagutzen dituzten letra bakarrak.

metodo globalarekin lotzen dena (ikus VIII. eranskina). Ostera gelan modu askeagoan lantzen dituzten testuak formatu itxiko testuak dira eta letra larriz idazten dituzte. HHrako helburua LHrako prestakuntza egitea denez, motrizitate finaren entrenamendura mugatzen dute ia idazketa. Hortaz, entrenamendu honetan hurrek egindako akatsak fosildu ez daitezten, hauek zuzen arazten dituzte.

3.2.3. Eguzkibegi ikastola

Galdakaoko Eguzkibegi ikastolan, konstruktibismoan oinarritutako Urtxintxa metodoa jarraitzen da, haurren aurkikuntza aktiboaren bidezko idazketaren jabekuntza prozesua sustatuz. Benetako funtzio eta erabilera soziala duten testu funtzionalen erabileraren mesedetan, bai formatu itxiko zein irekiko testuak sortzen dituzte (data, oharra, ipuinak, eskutitzak, egunkaria, e.a.). Esanahiaren eraikuntza lehenesten da, eguneroko edozein egoera baliatuz idazketa lantzeko. Kaligrafiari ez zaio garrantzi handirik ematen.

Jabekuntza prozesu honetan, haur bakoitzak bere erritmoaren arabera aurkikuntzak egiten ditu, eta horrela gerta liteke gela berean fase ideografikoan zein silabikoan dauden haurrak egotea. Ikuspegi honen arabera, hurrek egiten dituzten akatsak beraien ikasketa prozesuan aurrera pausuak ematen ari diren seinale dira.

3.3. Ikerketa lagina

Lagina osatzen duten ikasle eta irakasleen kopurua ez da oso handia. Guztira 55 ikaslek, 5 irakaslek eta ikasketak buru lek osatu dute, guztiak elebidunak. Zentro bakoitzean, HHko azken urtean dagoen 5-6 urtetako ume talde baten (lerro bietatik, bakarra) idazkiak eta kurtso honetan tutore diren irakasleen (lerro bietakoak) galdetegiak dira behaketa eta elkarrizketekin batera jaso eta aztertu ditugun materialak.

3.3.1. Irakasleen ezaugarriak

a) Irakasleen ezaugarri soziolinguistikoak

Aukeratutako hiru ikas zentroak D eredukoak direnez, irakasle guztiak elebidunak dira nahiz eta denek gaztelania duten ama hizkuntza. Adinari dagokionez 29-57 urte bitartekoak diren arren, gazteagoak diren Avellanedako irakasle biak izan ezik, gainerako laurak 46-57 urte bitartekoak dira. Belaunaldi bateko tartea dago Sodupeko irakasleen eta gainerakoen artean. Hala ere, esperientzia zabala duten irakasleak dira denak: 6-8 urte bitarteko esperientzia irakasle gazteenek eta 24 urtetik gorakoa gainerakoek.

b) Irakasleen jarrera

Orokorrean oso jarrera parte hartzailea azaldu badute ere, zenbait irakaslek zalantzak izan dituzte galdetegiko galdera jakinetan eta gure laguntza eskatu dute. Zalantza horiek aitzitik, ez dira galderen ulermen ezarekin lotutakoak izan, guk ustez eskuratu nahi genituen erantzunak asmatu nahi izatearekin baino. Jarrera horrek nolabaiteko ziurtasun eza islatzen du, ustez (teoria mailan) egokiak diren erantzunak eman nahian ibili direlako. Ziurtasun falta horrek agian azal dezake irakasle batzuek ahozko elkarrizketan azaldu digutenaren, behaketetan ikusi ahal izan dugunaren eta galdetegietan erantzun digutenaren arteko zenbait kontraesan.

3.3.2. Ikasleen ezaugarriak

a) Ikasleen ezaugarri soziolinguistikoak

Lagineko ikasleen ezaugarriak, honako irizpideen arabera sailka ditzakegu.

- **Kopurua:** lagina 55 haurrek osatzen dute: 23 Eguzkibegi ikastolakoak, 13 Etorkizuna ikastolakoak eta 19 Avellaneda ikastetxeakoak.

- **Euskara maila:** nahiz eta guztiak elebidunak izan, ez da laurden batetara heltzen ama hizkuntza euskara dutenak. Etxetik euskaldunak diren 13 umeek Eguzkibegi ikastolan ikasten dute. Jatorri geografikoa kontuan hartuta, haurrek ikas zentrotik kanpo euskaraz hitz egiteko dituzten aukerak nahiko urriak dira, Bilbo Handiko egoera soziolinguistikoak ez baitu horretarako aukera handirik eskaintzen.

- **Neba-arrebak:** haurren 3/4ek baino gehiagok neba-arrebak dituzte. Horietatik ia erdiek, idazketari dagokionez eredugarri izan daitezkeen neba-arreba nagusiak dituzte.

- **Etorkinak:** haur etorkin bakarra txinatarra da eta Eguzkibegi ikastolan dago.

b) Ikasleen jarrera

Haur bakoitzaren idazketa maila ezagutu nahian, orri zuri bana banatu eta asteburuan egindakoa idatz zezaten eskatu diegu. Emandako kontsigna hori ondo ulertu duten seinale, zenbait haurrek aurkeztu dituzten kezka eta zalantzak izan dira. Egindako eskakizunaren aurrean euren gabeziez eta idazteko gaitasunez kontziente izan diren unean, nolabaiteko ziurtasun eza azaleratu dute zenbait umek “*nik ez dakit idazten*” esaldia errepikatuz. Zalantzatienak Urtxintxa metodoko haurrak izan dira eta ziurrenak, Doman metodokoak.

3.3.3. Gurasoen ezaugarriak

a) Gurasoen ezaugarri soziolinguistikoak

Ikerketan parte hartu duten gurasoen lau bostenek (% 79), unibertsitate zein goi mailako zikloetako formazioa du. Beraz, ia haur guztiak alfabetatutako familietan bizi direnez, haur gehienentzat familia izan da alfabetatzerako lehenengo agentea.

Ama hizkuntzari dagokionez, euskara % 7,75ek (9) baino ez duten arren, nagusiagotan euskaraz alfabetatu diren gurasoak ere badira, % 11,20koa (13) izanik bere seme-alabei euskara, ama hizkuntzat transmititu nahi izan dien gurasoak. 13 hauetatik guztiak Eguzkibegi ikastolako ikasleen gurasoak dira. Brasil eta Txekiakoak diren guraso bi izan ezik, guztiak bai Espainia zein Euskal Herrikoak dira.

b) Gurasoen jarrera

Aztertutako ikas zentroetako irakasleen esanetan, nagusi dira beraien seme-alaben hezkuntza prozesuekiko inplikazioa duten eta beraien seme-alabek ematen dituzten aurrera pausuez arduratsu agertzen diren gurasoak.

3.4. Lanaren gorabeherak

Ikerketaren hasieratik bukaerara arte, gurekin lankidetzan jardun duten tutore eta ikasketa buruaren jarrera guranako bikainekoa izan da. Lehenengo kontaktua egin dugun momentutik prest agertu dira edozertan laguntzeko, beraien geletako ateak zabalduz nahi beste galdera, behaketa, eskakizun, e.a. egiteko.

Zentzu honetan, ikerketaren garapena diseinatutako ildotik joan da eta ez da azken uneko aldaketarik edota definitutako bidetik alden arazi digun ezustekorik izan, behar izandako guztia eskatzeko jarri dizkiguten erraztasunek ahalbidetu baitigute planifikatutako urrats guztiak ematen joan ahal izatea. Primerakoa izan da baldintza horietan lan egin ahal izatea, gure beharrianetara egokitu baitira uneoro, metodologian definitutako urrats guztiak pentsatu bezala eman ahal izanez.

Ezusteko bakarra hasiera batean aukeratu genuen Gernikako Doman metodoko ikastetxearekin izan dugu, ikerketan parte hartzeko baiezkua eman eta beraien laguntza eskaintzeko prest azaldu ondoren, atzera bota baitziren. Ezezkoa jasota eta Doman metodoko beste zentro batekin –Sodupeko Avellaneda ikastetxea– kontaktuan jarri bezain pronto aldiz, dena primeran joan da.

4. EMAITZAK

4.1. Erabilitako ikerketa tresnen emaitzen analisia

Atal hau osatzeko metodologiaren inguruko galdetegietatik eskuratutako datuak (ikus II. eranskina) abiapuntutzat hartu ditugun arren, elkarrizketa eta behaketetako emaitzekin osatu dugu. Galdeketa guztietako datu eta adibiderik esanguratsuenak 9 azpi-atal nagusitan berriz bildu ditugu.

4.1.1. Idazketa... da

Irakasleek oso iritzi ezberdinak dituzte idaztea zer den inguruan. Erdiek esanahia eta funtzio soziala duten testuak sortzeko tresnatzat kontsideratzen dute. Gainontzekoek aldiz, ahozkoaren transkribapenarekin (% 16,66) edota idazketa prozesuaren mekanikaren lanketarekin (% 33,33) lotzen dute.

Aldiz, honekin kontraesanean, irakasle guztiek idazketa sistemaren alde formalen lanketa baino, esanahiaren eraikuntza lehenesten dutela adierazi dute.

4.1.2. Idazketa prozesuaren hasierako pausoak

Irakasleek, idazketarekin hasteko izan beharreko aurre-gaitasunez, adinaz eta eman beharreko hasierako urratsez ere, ikuspuntu ezberdinak dituzte.

a) Aurre gaitasunak: Etorkizuna eta Eguzkibegiko 4 irakasleek (% 66,66), haurrek beharrezkoak dituzten gaitasunak idaztearekin batera garatzen dituztela uste dute baldin eta helburu komunikatiboa duten egoera errealetan eta anitzetan parte hartzeko aukera badute. Avellaneda ikastetxeko irakasle 2ek aldiz (% 33,33), haurrak idazteko prest egon daitezen zenbait aurrekari landuta izatea beharrezkoa dutela uste dute (eskuaren eta begiaren arteko koordinazioa, arreta gaitasuna, e.a.). Horregatik, irakurketa eta idazketaren jabeakunza erraztuko dieten ariketa ezberdinak jorrazera bideratutako psikomotrizitate saioak egunero burutzen dituzte.

b) Adina eta hasierako urratsak: 6 irakasleetatik 5ek (% 83,33) idazketaren hastapenak 2-3 urte aldera kokatzen dituzte eta norberaren izena, arduradunaren izena edota gelakideen izenak ezagutzea eta idaztea dira ematen dituzten hasierako urratsak. Etorkizuneko irakasle batengan aldiz (% 16,66), nahiko erantzun adierazgarria jaso dugu, 4 urte aldera kokatzen baitu idazketaren hastapena, lehenbiziko urrats gisa, heldutasun

fisikoaren lanketa (motrizitate fina, esku-begiaren arteko koordinazioa, e.a.) eta idazketaren erabileraren funtsaren ezaguera jorratuz.

4.1.3. Eskolan sortutako testu motak eta materiala

Idazketa prozesua lantzeko, Eguzkibegi eta Etorkizuneko irakasleek (2/3) egoera errealekin lotutako hainbat motatako testuak erabiltzen dituzte: Etorkizuna ikastolan batez ere formatu itxiko testuak eta Eguzkibegi ikastolan, bai formatu itxiko bai formatu irekiko testuak. Avellanedako irakasle 2ek berriz (1/3), testuinguruz kanpo dauden eta metodoak jarraitzen dituen hitzen bitak eta txartelak erabiltzen dituzte.

Amara Berri sistemako irakasleen kasuan emandako erantzuna zalantzarria da, egoera errealekin lotutako oso testu gutxi sortzen baitituzte, idazketa lana batez ere inprimategiaren inguruan antolatuz.

4.1.4. Eskolako testuen sortzailea

Gelako eguneroko jarduera ezberdinetan haurrek modu aktiboan parte hartzeko dituzten aukera eskasak bitxia iruditu zaigu. Etorkizuneko eta Avellanedako irakasleek (% 66,33), askoz parte hartze eta protagonismo maila altuagoa egozten diete irakasleei haurrei baino, testuen ekoizpenean haurren parte hartzea % 5etik % 20ra bitartean kokatzen baitute, eta irakaslearena, berriz, % 80tik % 95era bitartean. Eguzkibegiko irakasle biek (% 33,33), parte hartze eta protagonismo orekatuagoak esleitzen dizkiete batzuei eta besteei: % 40-50 bitartean kokatzen dute haurren parte hartzea eta % 50-60 bitartean irakasleena.


4.1.5. Taldekatzeak

Idazketaren lanketarako erabilitako taldekatze motei dagokionez, ez dago besteen gainetik nabarmen gailentzen den taldekatze motarik, jarduera ezberdinetarako ondoen egokitzen den taldekatzea erabiltzen dute eta. Dena den, taldekatze motarik erabiliena talde txikia da (% 100), talde handia eta bakarkako ekoizpenak bigarren lekuan daude (% 83,33), azken aukera gisa bikotekako taldekatzea hautatuz (% 66,66).

4.1.6. Aniztasunaren trataera helburuak zehazterakoan

Ikertutako ikastetxeetatik bitan (% 66,66) –Eguzkibegin eta Etorkizunan– konstruktibismoaren ildo nagusiei jarraituta, umeen aurre ezagutzak kontuan hartzen dituzte gelako helburuak eta lana diseinatzeko eta planifikatzeko orduan GHE landu nahirik. Avellaneda ikastetxearen kasuan aldiz (% 33,33), gelan burutu beharreko lana eta

lortu beharreko helburuak homogeneousizatzera jotzen da. Irakasleak erabakitzen du zer, noiz eta nola irakatsi behar den irakatsi beharrekoa.



1. grafikoa. Helburuen planifikazioaren abiapuntua

4.1.7. Kaligrafia

Kaligrafiari buruzko galderek eztabaidarik handienetakoak sortu dute. Jasotako emaitzak zenbakien argitan aztertuta, honakoa esan dezakegu: Avellanedako irakasle 2ek (% 33,33) 2-4 puntu bitarteko garrantzia ematen diote kaligrafiari eta Etorkizuna eta Eguzkibegiko laurek (% 66,66) 7-8 bitartekoa.



2. grafikoa. Kaligrafiari emandako garrantzia


Kaligrafia lantzeko moduari dagokionez ostera, ustezko bateratasuna egon da, guztiek kaligrafia gelan lantzen diren idazkietan modu integratuan lantzen dutela erantzun baitute. Hau ez dator bat Amara Berriko irakasleek erabilitako metodologiarekin, inprimategian jorrotzen dituzten testuingururik gabeko hitzen idazketaren helburua, motrizitate fina eta ortografia lantzea baita. Gainera, letra guztiak berdin egiteko asmoz, karriloidun orriak erabiltzen dituzte sarritan (ikus VIII. eranskina).

4.1.8. Ebaluazioa

Haurren prozesua baloratzeko erabilitako ebaluazio sistemaz galdetzean, guztiak bat etorri dira ebaluazioa ikasketa prozesua bera ebaluatzeko tresnatzat seinalatzean, honetarako tresnarik garrantzitsuena behaketa dela aintzat hartuz.

Ebaluatutako aspekturik errepikatuen, umea ikasketa prozesuaren zein unetan dagoen da (% 100). Maila txikiago batean, (% 33,33) irakasle gisa beraien lana ebaluatu eta

birplanteatzeko ere erabiltzen dute –bharrezkoa izanez gero metodologia aldaketak egiteko– eta bakar lek ebaluatzen ditu umeeek egiten dituzten akatsak.



3. grafikoa. Ebaluaketaz egindako erabilera

4.1.9. Haurrek egindako okerrak


Etorkizuna eta Eguzkibegiko irakasleek (% 66,66), idazketaren hastapenetan haurrek egiten dituzten akatsak normalizat kontsideratzen dituzte, ikasketa prozesuan aurrera pausuak ematen ari diren seinale eta hortaz ez dute gehiegizko zuzenketa beharrik ikusten. Avellanedako irakasleek ostera (% 33,33), egindako akatsak ikusarazi eta zuzendu beharra daudela uste dute, hauek fosilizatu daitezkeen ekiditeko.

Haurrek egiten dituzten akatsak zuzendu eta berreginarazten dituztela Avellanedakoek onartu duten bakarrak izan diren arren, Etorkizuneko irakasleek ere ahozko elkarrizketan iritzi bera adierazi digute. Arrazoi horregatik haurrek sortzen dituzten idazkiak irakaslearen gainbegiratze pean idatzi behar dituzte.

4.2. Haurren idazkien analisisia

4.2.1. Haurren idazketa maila: idazketa faseak

a) *Ikas zentroka*



4. grafikoa. Haurren idazketa maila ikas-zentroka


Haurren idazkiak zentroka aztertuta (ikus VI. eta VII. eranskinak), emaitza deigarriak antzeman ditzakegu Avellaneda ikastetxearen eta Eguzkibegi eta Etorkizuna ikastolen artean. Avellanedan fase silabiko alfabetikoan dauden haurren kopurua beste guztien gainetik nabarmen gailentzen da, fase honetan haurren % 68,4 kokatuz eta % 26,31 fase alfabetikoan. Gutxiengo bat % 5,1 fase ideografikoan dago. Bakarra ere ez dago fase alfabetikoan.

Etorkizun fase silabiko alfabetikoan dauden haurren kopurua murriztagoa den arren, faserik ugariena izaten jarraitzen du umeen % 46 fase horretan daudela. Honetan ere, fase alfabetikoa bigarren ugariena da (% 38,7) eta azkenik fase silabikoa (% 15,3).

Eguzkibegik aldiz, haurren gehiengoa fase silabikoan du (% 34,8). Fase silabiko alfabetikoan dauden haurren kopurua bigarren postuan kokatzen da (% 26,08), fase alfabetikoan daudenak hirugarren (% 21,7) eta azkenik ideografikoan daudenak (% 17,4).

b) Orokorrean

Lagina osatzen duten 55 haurrak orokorrean aztertuta, ia erdiak (% 45,45) fase silabiko-alfabetikoan daude, laurdenak (% 27,27) fase alfabetikoan, bosten bat gutxi gora behera (% 18,20) fase silabikoan eta gainerako hamarrenak (% 59,09), ideografikoan.



5. grafikoa. *Haurren idazketa maila orokorrean*

Ikus daitekeenez, HHko 5 urteko gelan jada ez dago idazketa bereizigabearen fasean dagoen haurrik. Haur gehienek idazketa maila nahiko ona erakusten dute, fase silabiko alfabetikoa eta alfabetikoan dauden haurrak gehiengoa izanik.

Gure ikerketan eskuratutako datu hauek bat egiten dute *Irakurtzen ikasteko zailtasunen prebentzioa* (Molina, 2000) artikuluko emaitzekin, zeinetan HHko 2. zikloa amaitzen denerako, ikasleen % 85ek idazketa nahiko ongi menderatzen dutela esaten den, idazten irakasteko erabilitako metodologia oso berritzailea izan ez bada ere.

4.2.2. Haurren idazketa: alderdi figuratiboak

a) Idazketaren noranzkoa eta letra mota

Behaketetan antzeman ahal izan dugunaren arabera, idazketaren noranzkoa erabilitako letra motarekin (larria edo xehea) lotuta dago, letra larriak egiteko nahikoa baita norabide konkreturik jarraitzen ez duten eta elkarren arteko loturarik ez duten makilatxoak egitearekin (eskumatik zein ezkerretik hasteak berdin du). Urtxintxa metodoak jarraitzen duen eredu eraikitzailean, haurrek letra larriz idazten dute. Etapa honetan esanahiaren alde eraikitzaileei soilik ematen zaie garrantzia, airean geldituz idazketaren alde figuratiboen lanketa. Teberosky-ren hitzetan, haurrak modu alfabetikoan idaztera heltzen direnean,

orduan hasi behar da hizkuntzaren alderdi figuratiboei garrantzia ematen (Ibarra, 2009: 8 or.), ordura arte haur bakoitzak bere nortasunari eta prozesuari jarraituz idazten baitu. Honek, noranzko aldrebesak, lotura ez-eraginkorrak, e.a. egitea dakar sarritan.

Amara Berri eta Doman metodoek ostera –ildo tradizionalagoak jarraitzen dituztenak–, idazketa armonikoaren (arina eta txukuna) bilaketan HHko 5 urteko gelan jada, letra xeheen erabileran trebatzen hasten dira. Letra xehez idazteak noranzko konbentzionala jarraitu behar izatera darama haurra, letren arteko lotura gauzatu ahal izateko. Aitzitik, trebakuntza hau nahiko modu zurrunean egiten dutela uste dugu, hurrei ia aldi berean letren noranzkoa, tamaina eta lotura barneratzea eta automatizatzea eskatzen baitzaie. Esanahiaren eraikuntza sarritan bigarren maila batean uzten dela behatu dugu, idazketa alfabetiko eta konbentzionalaren bilaketa lehenetsiz.

b) Ortografia

Akats ortografikoei dagokienez, ez dugu alderik nabari izan metodologia ezberdinak jarraitzen dituzten haurrengan. Adin honetan ohikoak diren akatsak egiten dituzte, batik-bat harreman grafoniko gardena ez duten grafien idazketan. Akatsik ohikoenak; s, z, x ts, tx, tz eta h grafiekin lotutakoak dira.

5. ONDORIOAK

Irakaslearen ikuspuntu pedagogikoak idazketa prozesuaren jabekuntzan zer nolako eragina duen aztertu nahiak bultzatu gaitu ikerketa hau egitera. Ondoren, helburu horrekin planteatu ditugun eta frogatu nahi izan ditugun hipotesietatik ondorioztatu duguna azaltzen dugu:

5.1. Hurrek testu gidatuetan forma aldetik idazketa maila hobea aurkezten dute testu askeetan baino.

Haurren idazkiak aztertuta, gelan jorratzen diren testu motek haurren ekoizpen autonomorako gaitasunean eragin handia dutela egiaztatu ahal izan dugu. Ikerketa honetan idaztea eskatu zaien testu irekia (*Kontatu asteburuan egin duzuna*), agendetan zein beste jarduera batzuetan sortutako formatu itxiko beste testu batzuekin (izena, data, ohar labur bat, e.a.) alderatu ditugu, alde nabarmenak aurkituz zenbait umerengan. Alde hau Eguzkibegi ikastolako haurrengan esaterako, honakoa da: testu gidatuetan idazketaren fase

alfabetikoan dauden haurren % 32,78tik, % 21,7ra jaisten da testu askeetan eta silabiko alfabetikoan daudenen % 30,43tik, % 26,08ra.

Formatu itxiko testuen idazketan, hurrek letretan, harreman grafonikoetan edota ortografian baino ez dute zentratu beharrik. Baina hizkuntza idatzia idazkera baino kontzeptu zabalagoa den aldetik, formatu irekiko testuen ekoizpenean, aurrekoen gain, epe luzerako oroimenean dituzten eduki semantikoak aktibatu behar dituzte, gramatika arauak kontuan izan eta aplikatu behar dituzte, hitzen banaketa konbentzionala zaindu behar dute, lexikoa eta ortografia zaindu behar dituzte, e.a. Formatu irekia duten testuak ekoiztea hortaz askoz gainkarga kognitibo handiagoa eskatzen die haurrei.

5.2. Testu askeetan haurren idazketa maila autonomoa neurtzea zailagoa da, dispertsio maila handiagoa delako.

Formatu irekiko testuak idazteak haurrengan dispertsio maila altuagoa sortzen duten arren, aukera hau izan da hiru metodologiak konparatzeko erabili duguna, benetan ikasle bakoitzaren GHE zein den jakitea eta euren kabuz zer idazteko gai diren modu argienean jakitea ahalbidetzen digun bakarria dela uste baitugu.

Idazkerakoan, hainbat dira aldi berean haurrak zaindu behar dituen aspektuak. Horietako batzuk automatizatuak izan ezean, umeengan idazteko gogoia desagertzea gerta liteke, gehiegizko lana ekartzen baitie. Arrazoi horrengatik konstruktibismoarekin lotutako ikuspegian esanahiaren alde eraikitzailean soilik zentratzen da arreta HHko etapan, airean geratuz idazketaren alde figuratiboen eraikuntza (Ibarra, 2009 : 13 orri).

5.3. Hurrek idazketaz egiten duten jabeakuntza prozesuan erabilitako metodologiak garrantzia handia duen arren, ikasketa prozesuan eragiten duten beste hainbat aldagai sozial ere badago.

Metodologiari dagokionez eta gure ikas zentro konkretuetara mugatuz, idazketaren alde figuratiboetan arreta gehiago jartzen duten metodologietan, hurrek idazketarekiko beldur gutxiago dutela antzeman dugu, idaztea forma ezberdinak dituzten letrak egitea den aldetik, izugarritzko trebakuntza dute eta. Hau, Doman eta neurri txikiago batean Amara Berri sistemetan antzeman dugu. Urtxintxa metodoan aldiz, idaztea esanahia duten testuak sortzea den aldetik, zalantziatiagoak azaldu dira eskatutako idazkia ekoizterakoan.

Idazkietan adierazitako mezuen edukiarekin, ordea, kontrakoa gertatu da. Urtxintxa metodoko haurrak izan dira adierazi nahi izan dituzten ideiak argien izan dituztenak,

beraientzat idaztea komunikazio tresna bat erabiltzea baita, eta Doman metodokoak aldiz irakasleen laguntza handiagoa behar izan dutenak.

Ondorioztatu daiteke hortaz, metodo gidatuagoetan hezi diren haurrentzat idaztea zenbait letra egitea dela eta horrenbestez ziurtasun osoa dutela jarduera mota honetan, nahiz eta zer adierazi nahi duten oso argi izan ez. Metodo konstruktibistetan aldiz, alde formalei dagokionez eredu konbentzionaletik gehiago urruntzen diren idazkiak sortzen dituzte haurrek, baina intentzio komunikatibo askoz argiagoa adierazten dutenak.

Metodologia alde batera utzita eta adinean zentratuz, aldeak ere nabari ahal izan ditugu adinaren eta idazketa mailaren artean, idazketa maila hobea aurkeztzen duten haurrak gelako nagusienak baitira. Fase ideografikoan dauden 5 umeak, uztailetik abendura bitartekoak dira eta fase silabiko-alfabetiko edota alfabetikoan dauden haurren % 70a aldiz, urtarriletik uztaileira bitartekoak.

Haurren ama hizkuntzari dagokionez ostera, harremana ikusi dugu honen eta idazketa fasearen artean. Fase ideografikoan dauden 3 umeetatik 2ren (% 66,66) ama hizkuntza gaztelera da, bakarrarena euskara izanik eta fase silabiko-alfabetiko eta alfabetikoetan dauden 13 umeetatik 9ren (% 69,23) ama hizkuntza euskara da. Haurren etxeko eta eskolako hizkuntza ezberdina izateak hasieran zailtasun gehigarria dakarkie hurrei alfabetatze prozesuan, etxeko hizkuntza ez den beste batean egin behar izaten dutelako.

Honenbestez, ikerketaren hasieran planteatu ditugun hiru hipotesi nagusiak bete egin direla baieztatu dezakegu, eskuratutako emaitzetan horrela frogatu baititugu. Hala ere, 5.3. hipotesiari dagokionez lortutako emaitzak ez dira aurreikusitakoarekin guztiz bat etorri. Konbentzimenduz eta pragmatismoz gure eredu eraikitzailearen alde egiten dugun arren, idazketari dagokionez ildo tradizionalagoa jarraitzen duten haurrek (batez ere Doman metodokoek) idazketaren alde figuratiboekiko erakusten duten ziurtasuna eta nagusitasuna ezin uka daitezke. Hortaz, ezin dezakegu metodo bat besteen gainetik gailentzen denik esan, bakoitzak bere indar gune eta ahulguneak baititu. Ikuspegi bakoitzak puntu batzuk hobetu beharko lituzke: irakurketa-idazketa metodo tradizionalak, HHn haurrak dakitenera hurbildu beharko lirateke, eta konstruktibistek egindako ikerketak kontuan izan. Konstruktibistek eta sozio-konstruktibistek bestalde, idazkera alfabetikotik aurrerako ikerketa gehiago egin beharko lituzkete eta idazketa modu sistematikoagoan landu (Ibarra, 2009: 8 or.).

6. EZATABAIDA

Aztertutako hiru metodologiek hasiera batean gudan igurikapen batzuk sortu arren metodologia berritzaileen hiru aplikazio ezberdintzat kontsideratzen direlako, Amara Berri eta Doman metodoen kasuan bestelako iritzi bat geratu zaigu. Ferreira eta Tebersoky-k proposatzen dituzten ideia eraikitzaileak baztertuta, hizkuntzaren alde figuratiboen eta mekanikoen lanketan zentratzen dute batik bat arreta, akatsik gabeko idazketa baitute helburu. Ahalegin horretan, irakasleek zer, noiz eta nola irakatsi behar den aukeratzeko dute, beraien ustez errazenetik zailenerako hurrenkerari jarraituta. Baina zailtasun hori beti ez dator bat ikasleen esperientziekin, bizipenekin eta ezagupenekin. Erraza eta zaila zer den definitzea oso zaila da, testuingurua eta bertako errealitatean dauden beharrezko aldakorrak diren neurrian. Hortaz, oinarri aurreratzailerik batzuetatik abiatuta erabilera klasikoa egiten duten metodoak direla ondoriozta dezakegu, metodo konduktistetatik hurbilago dauden jarduerak proposatzen baitituzte.

Irakurketa Goiztiarrerako Glenn Doman programa gainera, metodo bat izan ordez teknika multzo soil baten aplikazioa ez ote den zalantza dugu, ez baititu metodologiaren inguruko hainbat irizpide eta oinarri psikopedagogiko definituak, behaketa eta irakasleei egindako elkarrizketetatik eskuratutako informaziora mugatu behar izanik aspektu batzuetan gure marko teorikoa. Urtxintxa metodoaren kasuan ere zalantzak ditugu, haurren garapenaren eritmoarekiko guztizko errespetua aldarrikatu arren, metodo bat eskaini nahi duten neurrian, jarraitu beharreko bidea nolabait markatua ez ote duten pentsatzen dugu eta.

Ez guke gure hausnarketa bukatu nahi ikerketan aurkitu ditugun kontraesanei ataltxo bat eskaini gabe. Bat ez etortze hauek, batez ere Amara Berri sistemako irakasleengan antzeman ditugu, konduktistagoak diren jarreretan: akatsen aurreko jarrera, idazketari emandako erabilera soziala, ebaluaketa sistema, e.a. Urtxintxa eta Doman metodoek zentzu honetan jarrera ziurragoak aurkeztu dituzte. Lehenengoak argi eta garbi bere burua konstruktibismoan kokatzen du eta bigarrenak ildo tradizionalago batean, eta bere sinesmenekiko koherente izan dira ikerketa osoan zehar. Amara Berri sistema oster, konstruktibismoaren erreferente garrantzitsuenetariko bat kontsideratua den aldetik, zenbait jarrera konduktista ezkutatu nahi izan balituzte jokatu dutela iruditu zaigu.

7. ETORKIZUNARI BEGIRA IKERTZEKO BIDE BERRIAK

Metodologia berritzaileen 3 aplikazio hauen inguruan garatutako markoak aukera eskaintzen digu tradizionalki aurkakotzat hartutako korrante konstruktibistaren eta konduktistaren arteko adiskidetze bide bat proposatzeko. Konstruktibistek idazketa prozesuaren jabeakuntzaren deskribapena egin dute baita haurrari eraikuntza hori errazteko idatzizko esperientzia askotarikoak eta funtzionalak eskaini ere idazketaren barne-egituraz jabe dadin, baina idazkera alfabetikotik aurrerako arlo figuratiboen lanketa eta ekarpena urria da. Teberosky beraren hitzetan, esanahiaren alde eraikitzaileei soilik eman diete arreta eta airean gelditu dira konduktistek lantzen dituzten idazketaren alde figuratiboen eraikuntza. Hortaz, ildo bien arteko adiskidetze proposamen bat egitea litzateke egokiena, Irune Ibarren planteamenduari jarraiki. Idazten hasten direnetik letren noranzkoaz, tarteaz, neurriaz, eta abarrez sistematikoki jabe araztea, baina erabilera eta funtzio soziala duten testuez baliatuz (Ibarra, 2009: 13 or.).

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ANAUT, L. (2004). *Amara Berri sistemaren inguruan*. Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila.

BIGAS, M. (2000). El lenguaje escrito. La alfabetización. In Bigas, M. eta Correig, M. *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (103-124 or.). Madrid: Síntesis.

BILBATUA, M. (2010). *Irakasle-ikasle eta ikasleen arteko interakzioak irakurketa eta idazketaren ikaste prozesuaren hastapenetan*. Donosti: Didaktika eta eskola antolakuntza saila UPV-EHU.

CARRERA, B. ETA MAZZARELLA, C. (2001). Vygotsky: enfoque sociocultural. *Educere articulos*, 13 (41-44 or.). 2014ko urtarrilaren 20an berreskuratua <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=35601309-etik>.

CORRAL, A. M. (1997). El aprendizaje de la lectura y la escritura en la escuela infantil. *Didáctica*, 9, 67-94 or.

CORREIG, M. (2000). ¿Qué es leer? ¿Qué es escribir? In Bigas, M. eta Correig, M. *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (125-156 or.). Madrid: Síntesis.

- DÍAZ DE ULZURRUN, A. (koor.) (1999). El aprendizaje de la lectoescritura. *El aprendizaje de la lectoescritura desde un punto de vista constructivista. Actividades para realizar en el aula: textos funcionales y cuentos*. Vol.1. (9-26 or.). Bartzelona: Graó.
- FONS, M. (2000). Aprender a leer y a escribir. In Bigas, M. eta Correig, M. *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (157-178 or.). Madrid: Síntesis.
- FONS, M. (2000). Enseñar a leer y a escribir. In Bigas, M. eta Fons, M. *Didáctica de la lengua en la educación infantil* (179-212 or.). Madrid: Síntesis.
- FONS, M. (2004). Enseñar a leer para vivir in M. Fons, *Leer y escribir para vivir*. Bartzelona: Graó.
- GLENN, D. (2007). *Cómo enseñar a leer a su bebé*. Edaf. 2014ko urtarrilaren 25ean berreskuratua quenosemeolvide.wordpress.com-etik.
- IBARRA, I. (2009). *Idazketaren didaktika urtez urte. Hik Hasi, 24. monografikoa*. Donostia: Xangorin-Hik Hasi.
- IBARRA, I. ETA BEREZIARTUA, G. (2011). *Irakurtzen eta idazten ikasteko proposamenak: atzo eta gaur*. Leioa: Ikasmaterialen Sare Argitalpena EHU-UPV.
- LARREA, K. ETA MAIA, J. (2010). *Galdera-erantzun batzuk hizkuntzaren didaktikaz*. Leioa: Ikasmaterialen Sare Argitalpena EHU-UPV.
- MACIAS, L. (2010). III Jornadas Interdisciplinares de Atención Temprana. *Buena praxis en Atención Temprana. Metodos Alternativos de Intervención. Pros y Contrás*. Palma De Mallorca, España: SEFIP.
- MENDIZABAL, A.; SAENZ, M. ETA OIARBIDE, J. (2011). *Urtxintxa, Irakaslearen gidaliburua 5 urte*. Donostia: Ikaselkar. 2014ko urtarrilaren 30ean berreskuratua http://www.elkarargialetxea.com/ikasmateriala/default.cfm?hizkuntza=1&atala=irakaslearen_gunea&nondik=proiektuak-etik.
- MOLINA, S. (2000). *Irakurtzen ikasteko zailtasunen prebentzioa*. Malaga: Aljibe.
- OIHARTZABAL, L. (1996). Irakurtze esanguratsua: Irakurtzen eta idazten irakasterakoan kontuan hartu beharreko hainbat aldagai. *Irakurketa-idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik. Hik Hasi 8. monografikoa* (8-32 or.). Euba: Ibaizabal.
- WEELS, G. (2001). Aprender con y de nuestros estudiantes. *Indagación dialógica. Hacia una teoría y una práctica sociocultural de la educación* (295-313 or.). Bartzelona: Paidós.

9. ERANSKINAK

9.1. ERANSKIN I: Metodologiaren inguruan irakasleei pasatutako galdetegia

HIZKUNTZA IDATZIA LANTZEN HAUR HEZKUNTZAN: IDAZKETA

IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK		
Ikastetxearen izena:		
Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan erabilitako metodologia/sistema:		
Etapa:	Zikloa:	Gela:
Irakaslearen izena:		

1. Zer da zuretzako idazketa/idaztea?

2. Hortaz, lehenetsi egiten da...

- Esanahiaren eraikuntza
- H. idatziaren kodetze sistemaren mekanika barneratzea

3. Idazketa...

- Irakurketarekin batera garatzen den prozesua da
- Irakurketa eta idazketa prozesu ezberdin bi dira

4. Idazketarekin hasteko...

- Haurrak aurretiazko heldutasun maila bat izan behar du

Hortaz: Zer egiten jakin beharko luke haur batek idazten hasi aurretik? / Zer trebetasun izan beharko luke haur batek idazten hasi aurretik?

- Beharrezko gaitasunak eta heldutasun maila idaztearekin batera garatzen ditu

5. Noiz hasten zarete idazketa prozesua lantzen?

6. Zeintzuk dira idazketa prozesuan ematen dituzuen hasierako urratsak?

7. Ze material erabiltzen duzue idazketa lantzeko? (Nolako idazki motak, fitxa motak)

8. Sortzen dituzuen testuak/idazkiak...

- Erabilera errealak dute, benetako egoera komunikatiboetan oinarrituak eta helburu bat lortzera bideratutakoak

Gehien jorratzen dituzuen idazki motak:

- Oharrak
 Zerrendak
 Data
 Ipuinak
 Egunkaria
 Komikia
 Abestiak/ olerkiak/ errimak/asmakizunak
 Eskutitzak

Besteren bat: _____

- Landu nahi diren letrak/silaba mota ezberdinak lantzeko, irakasleak sortzen/bilatzen dituen testuak (egoera komunikatibo eta funtzioaletatik kanpo)

9. Nor izaten da eskolan sortutako testuen sortzailea?

- Haurra
 Irakaslea

9.1. Zer testu mota sortzen du irakasleak? Eta ikasleak?

9.2. Batez beste, zenbat testu sortzen ditu batak eta besteak?

Haurrak: % _____

Irakasleak: % _____

9.3. Testuak haurrak talde txikietan sortzen ditu ala nork berea?

10. Nolako taldekatzeak erabiltzen dituzue?

- Bakarka: % _____
 Bikoteak: % _____

Talde txikiak: % _____

Talde handia: % _____

11. Nolako maiztasunez egiten dituzue idazketarekin lotutako ariketak gelan?

12. Biribildu 1etik 10era, nolako garrantzia duen eskola gizarte interakzioak H. idatziaren lanketan (gizarteko gaiak jorratzea, errealak, haurren egunerokoarekin eta ingurune hurbilarekin lotutakoak).

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

13. Testuen ekoizpenaren aurretik, gizarte eskola arteko inplikazioa bilatzen da?

Aurretik, landuko den gaiari buruz denen artean hitz egiten da

Zuzenean testuen ekoizpenera jotzen da

14. Zein irizpide jarraitzen dituzue gelako lana planifikatzeko eta helburuak zehazteko orduan?

Haurren aurre ezagutzak kontuan hartzen dira ikaskuntza planifikatzeko

Irakasleak aukeratzen du zer, noiz eta nola irakatsi

15. Biribildu 1etik 10era, nolako garrantzia ematen diozue kaligrafiari?

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

16. Nola lantzen duzue kaligrafia?

Modu sistematikoan (kaligrafia lantzeko fitxak edota koadernoak)

Gelan ekoiztutako idazkietan integratuta

Besterik _____

17. Zein da erabiltzen duzuen ebaluazio sistema?

Sumatiboa (ea helburuak bete diren eta zein mailatan bete diren)

Formatiboa/erregulatzailea (ikasketa prozesua bera ebaluatzea)

18. Ebaluazioa erregulatzailea bada, zein baliabide erabiltzen dituzue balorazioa egiteko? (behaketa, diktaketak, ikasle bakoitzaren erregistroak, ...)

19. Aukera ematen zaio haurrari bere ebaluaketan parte hartzeko?

Koebaluazioa

Elkarrekiko ebaluazioa

Autoebaluazioa

20. Zertarako erabiltzen duzue ebaluazioa?

Umeak prozesuaren zein unetan dauden jakiteko

- Umeek egiten dituzten akatsak zuzentzeko
- Metodologia aldaketa egiteko eta irakaskuntza prozesua birplanteatzeko

21. Hurrek egiten dituzten akatsen aurrean (akats ortografikoa, gaizki identifikatutako grafiak, hitzen banaketa okerra, ...), irakasle bezala, ze jarrera duzu?

- Txarto idatzitako hitzak zuzentzen zaizkie
- Txarto idatzitako hitzak berriro berregin/idatzi arazten zaizkie
- Ikasketa prozesuaren gertaera normalizat hartzen da eta ez da zuzentzen

22. Ebaluaketa egiterakoan...

- Haur bakoitzari, dagoen idazketa fasearen arabeko eskakizunak eta ebaluazioa egiten zaio
- Irizpide bateratuak daude haur guztien ebaluazioa egiteko

23. Idazketari dagokionez, zer helburu dituzue H.H.-ko etapa amaitzen denerako?

24. Zeintzuk uste duzu direla irakats metodo/sistema honen punturik fuerteenak? Eta ahulenak/gabeziak?

25. Zein da metodologia/sistema honen erabileraren zergatia?

9.2. ERANSKIN II: Metodologiaren inguruko galdetegi-tatik eskuratutako emaitzen taula

Atal honetan, ikertutako hiru ikastetxe-tatik ateratako datuak aztertu ditugu. Hain zuzen ere, ikerketaren hipotesi nagusienak baieztatu edota ezeztatzea ahalbidetuko duten datuak.

Lehenengo atalean, irakasleei (baita ikasketa buru bati) luzatutako galdeketaren datuak biltzen dira atal bitan berezituak. Batetik, galdera itxiei dagozkien datuak eta bestetik ordea, galdera irekiei dagozkienak.

9.2.1. Galdera itxiak

GALDERAK	IKAS ZENTROAK			EMAITZAK GUZTIRA
	EGUZKIBEGI IKASTOLA	ETORKIZUNA IKASTOLA	AVELLANEDA IKASTETXEA	
2.- Hortaz, lehenetsi egiten da...				
0 Esanahiaren eraikuntza	0 % 100 (2)	0 % 100 (2)	0 % 100 (2)	0 % 100 (6)
1 H. idatziaren kodetze sistemaren mekanika barneratzea.	1	1	1	Inkestatutako sei irakasleek, kodetze sistemaren mekanikaren barneraketari baino - hau da, idazkera sistemaren alde formalen lanketari baino (grafia ezberdinen idazkera, arau ortografiko eta

				gramatikalak, puntuazioa eta abar)-,esanahiaren eraikuntzari ematen diote garrantzia.
<p>3.- Idazketa...</p> <p>0 Irakurketarekin batera garatzen den prozesua da</p> <p>1 Irakurketa eta idazketa prozesu ezberdin bi dira</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>1</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>1</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>1</p>	<p>0 % 100 (6)</p> <p>Irakasle guztiek, irakurketa eta idazketa elkarren artean lotura estua duten eta elkarren osagarriak diren prozesutzat hartzen dituzte. Txanpon berdinen (H idatziaren) alde biak bailiran.</p>
<p>4.- Idazketarekin hasteko...</p> <p>0 Haurrak aurretiazko heldutasun maila bat izan behar du</p> <p>Hortaz, zer egiten jakin beharko luke haur batek idazten hasi aurretik?/ Zer trebetasun izan</p>	<p>0</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>% 50 (1) Heldutasun fisikoa eta batez ere idazketa eta irakurketaren zeregina</p>	<p>0</p>	<p>0 % 33,33 (2)</p>

<p>beharko luke haur batek idazten hasi aurretik?</p> <p>1 Beharrezko gaitasunak eta heldutasun maila idaztearekin batera garatzen ditu</p>	<p>1 % 100 (2)</p>	<p>barneratzea</p> <p>% 50 (1) Ahozko, entzumenezko eta ikusmenezko diskriminazioa ondo landuta izatea</p> <p>1</p>	<p>1 % 100 (2)</p>	<p>1 %66,66 (4)</p>
<p>8.- Sortzen dituzuen testuak...</p> <p>0 Erabilera erreala dute, benetako egoera komunikatiboetan oinarritutakoak eta helburu bat lortzera bideratutakoak dira</p> <p>1 Landu nahi diren letrak/silaba mota ezberdinak lantzeko, irakasleak sortzen/bilatzen dituen testuak (egoera komunikatibo eta funtzionaletatik kanpo)</p>	<p>0 % 100 (2) Oharrak, zerrendak, data, ipuinak, egunkaria, komikia, abestiak/olerkiak/errimak/asmakizunak, eskutitzak, gonbidapenak</p> <p>1</p>	<p>0 % 100 (2) Oharrak, zerrendak, data, abestiak/olerkiak/errimak/asmakizunak, eskutitzak, errezetak</p> <p>1</p>	<p>0</p> <p>1 % 100 (2)</p>	<p>0 %66,66 (4)</p> <p>1 %33,33 (2)</p>

<p>9.- Nor izaten da eskolan sortutako testuen sortzailea?</p> <p>0 Haurra</p> <p>1 Irakaslea</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>1 % 100 (2)</p>	<p>0 %50 (1)</p> <p>1 %100 (2)</p>	<p>0</p> <p>1 %100 (2)</p>	<p>0 %50 (3)</p> <p>1 %100 (6)</p>
<p>10.- Nolako taldekatzeak erabiltzen dituzue?</p> <p>0 Bakarka</p> <p>1 Bikoteak</p> <p>3 Talde txikiak</p> <p>4 Talde handiak</p>	<p>0 %100 (2)</p> <p>1 %50 (1)</p> <p>2 %100 (2)</p> <p>3 %100 (2)</p>	<p>0 %50 (1)</p> <p>1 %50 (1)</p> <p>2 %100 (2)</p> <p>3 %50 (1)</p>	<p>0 %100 (2)</p> <p>1 %100 (2)</p> <p>2 %100 (2)</p> <p>3 %100 (2)</p>	
<p>12.- Biribildu 1etik 10era nolako garrantzia duen eskola gizarte interakzioak H. idatziaren lanketan.</p>	<p>%50 (1) → 8</p> <p>%50 (1) → 9</p>	<p>%50 (1) → 10</p> <p>%50 (1) → 8</p>	<p>%100 (2) → 8</p>	<p>%100 (6) → 8-10</p>
<p>13.- Testuen ekoizpenaren aurretik, gizarte eskola arteko inplikazioa bilatzen da?</p> <p>0 Aurretik, landuko den gaiari buruz hitz egiten da</p>	<p>0 %100 (2)</p>	<p>0 %100 (2)</p>	<p>0</p>	<p>0 %66,66 (4)</p>

1 Zuzenean testuen ekoizpena jotzen da	1	1	1 % 100 (2)	1 % 33,33 (2)
14.- Zein irizpide jarraitzen dituzue gelako lana planifikatzeko eta helburuak zehazteko orduan?				
0 Haurren aurre ezagutzak kontuan hartzen dira ikaskuntza planifikatzeko	0 % 100 (2)	0 % 100 (2)	0	0 % 66,66 (4)
1 Irakasleak aukeratzen du zer, noiz eta nola irakatsi	1	1	1 % 100 (2)	1 % 33,33 (2)
15.- Biribildu 1etik 10era, nolako garrantzia diozuen kaligrafiari?	% 50 (1) → 7-8 % 50 (1) → 4	% 50 (1) → 2 % 50 (1) → 8	% 100 (2) → 7	% 33,33 (2) → 2-4 % 66,66 (4) → 7-8
16.- Nola lantzen duzue kaligrafia?				
0 Modu sistematikoan	0	0	0	
1 Gelan ekoiztutako idatzietan integratuta	1 % 100 (2)	1 % 100 (2)	1 % 100 (2)	1 % 100 (6)
17.- Zein da erabiltzen duzuen ebaluazio sistema?				

<p>0 Sumatiboa (ea helburuak bete diren eta zein mailatan bete diren</p> <p>1 Formatiboa/ erregulatzaileria (ikasketa prozesua bera ebaluatzea)</p>	<p>0</p> <p>1 % 100 (2)</p>	<p>0</p> <p>1 % 100 (2)</p>	<p>0</p> <p>1 % 100 (2)</p>	<p>1 % 100 (6)</p>
<p>19.- Aukera ematen zaio haurrari bere ebaluaketan parte hartzeko?</p> <p>0 Koebaluazioa</p> <p>1 Elkarrekiko ebaluazioa</p> <p>2 Autoebaluazioa</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>1 % 50 (1)</p> <p>2</p>	<p>0 % 50 (1)</p> <p>1 % 50 (1)</p> <p>2 % 50 (1)</p> <p>% 50 (1) EZ</p>	<p>0</p> <p>1</p> <p>2</p> <p>% 100 (2) EZ</p>	<p>% 50ak aukera du bere ebaluaketa prozesuan parte hartzeko.</p> <p>0 % 100 (3)</p> <p>1 % 66,66 (2)</p> <p>2 % 33,33 (1)</p> <p>% 50ak ez du bere ebaluaketa prozesuan parte hartzeko aukerarik.</p>
<p>20.- Zertarako erabiltzen duzue ebaluazioa?</p> <p>0 Umeak prozesuaren zein unetan dauden jakiteko</p> <p>1 Umeek egiten dituzten akatsak zuzentzeko</p> <p>2 Metodologia aldaketa egiteko</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>1 % 50 (1)</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>1</p>	<p>0 % 100 (2)</p> <p>1</p>	<p>0 % 100 (6)</p> <p>1 % 16,66 (1)</p>

eta irakaskuntza prozesua birplanteatzeko	2 %50 (1)	2 %50 (1)	2	2 % 33,33 (2)
21.- Hurrek egiten dituzten akatsen aurrean, irakasle bezala, zer nolako jarrera duzu?				
0 Txarto idatzitako hitzak zuzentzen zaizkie	0	0	0	
1 Txarto idatzitako hitzak berriro berregin/idatzi arazten zaizkie	1	1	1 % 100 (2)	1 % 33,33 (2)
2 Ikasketa prozesuaren gertaera normaltzat hartzen da eta ez da zuzentzen	2 % 100 (2)	2 % 100 (2)	2	2 % 66,66 (4)
22.- Ebaluaketa egiterakoan...				
0 Haur bakoitzari, dagokion idazketa fasearen arabera eskakizunak eta ebaluazioa egiten zaio	0 % 100 (2)	0 % 100 (2)	0	0 % 66,66 (4)
1 Irizpide bateratuak daude haur guztien ebaluazioa egiteko	1	1	1 % 100 (2)	1 % 33,33 (2)

9.2.2. Galdera irekiak

GALDERAK	IKAS ZENTROAK			GUZTIRA
	EGUZZIBEGI IKASTOLA	ETORKIZUNA IKASTOLA	AVELLANEDA IKASTETXEA	
1.- Zer da zuretzako idazketa/idaztea?	<p>%50 (1) Ahozko hizkuntza era idatzira adieraztea prozesu naturala jarraituz</p> <p>%50 (1) Komunikatzeko tresna bat, sistema bat da, ulermen/ekoizpen prozesuaren elementua</p>	<p>%50 (1) Komunikatzeko tresna bat</p> <p>%50(1) Pentsamendua adierazteko beste modu bat</p>	<p>%100 (2) Landutako hitzak eta esaldiak plasmatea</p>	
5.- Noiz hasten zarete idazketa prozesua lantzen?	<p>%100 (2) 2 urteko gelan (heldutasun mailaren arabera)</p>	<p>%50 (1) 4 urteko gelan</p> <p>%50(1) Eskolan sartzen diren momentutik, 2 edo 3 urterekin</p>	<p>%100 (2) 3 urteko gelan</p>	
6.- Zeintzuk dira idazketa prozesuan ematen dituzuen	<p>%100 (2) Lehenengo, motibazio elementu bezala</p>	<p>%50 (1) Heldutasun fisikoa lantzea eta haurrek</p>	<p>%100 (2) Bakoitzaren izena eta</p>	<p>Irakasleen %83,33ak, ume bakoitzak norberaren izena ezagutzea, arduradunaren izena ezagutzea edota</p>

<p>hasierako urratsak?</p>	<p>zerrendatze testuak: norberaren izena, arduraduna, gelakideen izenak, ... eta ondoren gelako objektuak, ipuinetako pertsonaiak, gaiarekin lotutako hiztegia eta abar.</p>	<p>ulertzea/barneratzea zertarako balio duen %50 (1)</p> <p>Beraien eta besteen izenaren identifikazioa, gelan dauden txartelen dekodifikazioa, irakurmenaren gozamenaz disfrutatzea, irakurketa eta idazketaren kokapen espaziala (goitik behera, ezkerretik eskumara, ...)</p>	<p>bokalak lantzea</p>	<p>gelakideen izenak ezagutzea idazketa prozesuaren hasierako urrats gisa izendatzen ditu eta %16,66ak, idazten hasi aurretik, haurraren heldutasun fisikoa (motrizitate fina, esku begi koordinazioa eta abar) eta idazketaren erabileraren funtsaren ezagueran kokatzen ditu hasierako urratsak.</p>
<p>7.- Ze material erabiltzen duzue idazketa lantzeko?</p>	<p>%100 (2)</p> <p>Euren izena, hiztegi txartelak, ipuinak, abestiak, olerkiak, ... Testu mota desberdinak, egoera errealekin lotuak.</p>	<p>%100 (2)</p> <p>Edozein motatako materiala, denetarik: gelan egon daitezkeen txartelak, oharrak, ipuinak, olerkiak, liburuak, abestiak, hitz errazak, izenak, fitxak, inprimategia, eta abar</p>	<p>%100 (2)</p> <p>Bitak eta txartelak</p>	<p>% 66,66ak, egoera errealekin lotutako edozein motatako testuak erabiltzen ditu idazketa lantzeko: hiztegi txartelak eta gelan egon daitezkeen edozein motatako txartelak, ipuinak, abestiak, olerkiak, zerrenda, izenak, oharrak eta abar. Beste %33,33ak berriz, testuinguruz kanpo dauden hitzen bitak eta txartelak erabiltzen ditu idazketaren lanketarako (irakurketarako erabiltzen dituzten berdinak).</p>

<p>9.1.- Zer testu mota du irakasleak? Eta irakasleak? ikasleak?</p>	<p>%50 (1) Irakasleek → umeen prozesuan laguntzeko Irakasleek → gaitasunen arabera %50 (1) Irakasleek → oharrak, testu mota ezberdinetan ereduak ematea, ... Irakasleek: agenda, oharrak, diktaketak, data, menua, ...</p>	<p>%100 (2) ez du bereizketarik egin irakasleak eta ikasleek sortutako testuen artean Ipuinak, abestiak, olerkiak, mezu esanguratsuak eguneroko bizitzarekin lotuak, ...</p>	<p>%100ak (2) ez du bereizketarik egin irakasleak eta ikasleek sortutako testuen artean Izena, data, klasean landutako hitzak, gutunak, gertakizunak, ipuinak</p>	<p>Galdera honetan lortutako erantzunak ez dira ondorioak atera ahal izateko moduko esanguratsuak</p>
<p>9.2.- Bataz beste zenbat testu sortzen ditu batak eta besteak?</p>	<p>%50 (1) Haurrak: %40 Irakasleak: %60 %50 (1) Haurrak: %50 Irakasleak: %50</p>	<p>%50 (1) Haurrak: %5 Irakasleak: %95 %50 (1) Haurrak: %20 Irakasleak: %80</p>	<p>%100 (2) Haurrak: %20 Irakasleak: %80</p>	<p>Inkestatutako sei irakasleen artean, oso erantzun ezberdinak egon dira. Jarraitutako metodologiaren arabera, haurrak gelan sortutako idatzietan parte hartzeko duen aukera oso ezberdina da. %66,33ak, hau da, seitik lauk, askoz parte hartze eta protagonismo maila altuagoa egozten dio</p>

				<p>irakasleari haurrari baino, testuen ekoizpenean haurraren parte hartzea %5 eta %20 artean kokatuz eta irakaslearena berriz %80 eta %95 artean.</p> <p>Gainerako irakasleek berriz, hau da %33,33ak, askoz parte eta protagonismo orekatuagoak egozten die batzuei eta besteei, %40-50 bitartean kokatuz haurren parte hartzea eta %50-60 bitartean irakasleena.</p> <p>Urtxintxa proiektuan haurrari askoz protagonismo eta aukera handiagoa emate zaio gelan sortutako idatzietan parte hartzeko, Amara Berri sisteman eta Doman metodoan baino.</p>
9.3.- Testuak haurrak talde txikietan sortzen ditu, ala nork berea?	<p>%100 (2)</p> <p>Jardueraren arabera biak</p>	<p>%50 (1)</p> <p>Nork berea</p>	<p>%100 (2)</p> <p>Gehienetan nork berea, baina batzuetan ere</p>	<p>%50 (3)ak, jardueraren arabera taldekatze mota biak -bai bakarka zein talde txikietan- erabiltzen</p>

		%50 (1) Egoeraren arabera bietan	denen artean	direla esaten du eta beste %50ak, gehienetan nork berea sortzen duela esaten du.
11.- Nolako maiztasunez egiten dituzue idazketarekin lotutako ariketak gelan?	%100 (2) Egunero eta uneoro	%100 (2) Egunero	%100 (2) Egunero	%100 (6)ak idazketarekin lotutako ariketak egunero egiten ditu.
18.- Ebaluazioa erregulatzailerak bada, zein baliabide erabiltzen dituzue balorazioa egiteko?	%100 (2) Behaketa, diktaketak, ikasleek sortutako idatziak, ... Denak	%100 (2) Behaketa eta ikasle bakoitzaren erregistroak	%100 (2) Behaketa	%100 (6)ak balorazioa egiteko gehien erabiltzen duen baliabidea, behaketa da.
23.- Idazketari dagokionez, zer helburu dituzue H.H.-ko etapa amaitzen denerako?	%50 (1) Ez dut helburu zehatzik. Ea umeak prozesuan aurrera egiten duen %50 (1) Hizkuntza idatziarekiko interesa azaltzea, bere berreraikuntza prozesua garatzen ari delarik.	%100 (2) Aurrerapausoak edo aurrekariak eskaintzea - behar diren trebetasunak garatzea- L.H.ko 1. ziklora heltzerakoan idazketa prozesua erraztasun gehiagoz bereganatzeko	%100 (2) Letra guztiak egiten jakitea, identifikatzea eta haiek bakarrik hitzak idazteko gai izatea	%33,33ak (2), ez du helburu zehatzik HHko etapa amaitzen denerako, soilik haur bakoitzak bere erritmoari jarraituta aurrera egitea eta H idatziarekiko interesa azaltzea. %33,33ak (2), L.H.rako prestakuntza/entrenamendu gisa ulertzen du H.H.n H. idatziaren inguruan egiten den lana, L.H.n erraztasun gehiagoz idazketa konbentzionala bereganatu

				ahal izateko. %33,33ak (2) berriz, hurrek letra guztiak ezagutzea eta egiten jakitea du helburutzat, modu autonomoan hitz ezberdinak idatz ditzaten gai izateko.
24.- Zeintzuk uste duzu direla irakats metodo/sistema honen punturik fuerteenak? Eta ahulenak/gabeziak?	<p><u>Aspekturik fuerteenak:</u> %100 (2) -Umearen heldutasun maila errespetatu egiten dela -Garapenari lehentasuna ematen zaiola %50 (1) -Umeen elkarkidetzarako</p> <p><u>Aspekturik ahulenak:</u> %50 (1) -Hitzen banaketa</p>	<p><u>Aspekturik fuerteenak:</u> %50 (1) -Entrenamendu fisikoa (motrizitate finaren lanketa egiten dela) %50 (1) -Umeen munduarekin, bizitza errealarekin lotura handia duela, grina piztu egiten duela eta esanguratsua dela</p> <p><u>Aspekturik ahulenak:</u> %50 (1) -Irakasleriari izugarritzko inplikazioa, elkar lana eta koordinazioa eskatzen</p>	<p><u>Aspekturik fuerteenak:</u> %100 (2) -Irakurtzen eta idazten oso erraz, ia ahaleginik egin gabe ikasten dutela</p> <p><u>Aspekturik ahulenak:</u> %50 (1)</p>	

	<p>ezberdintzeko zailtasunak</p> <p>-Norabide egokia jarraituta idazteko zailtasuna</p> <p>%50 (1)</p> <p>-Idazketa prozesuaren inguruan hezitzaileek dituzten ikuspegi desberdinak (H.H. eta L.H.ren artean)</p>	<p>dionez, batzuei nahiko latza egiten zaiela</p>	<p>-Oso metodo gidatua dela</p> <p>%50 (1)</p> <p>-Ez dio puntu ahulik ikusten</p>	
<p>25.- Zein da metodologia/sistema honen erabilpenaren zergatia?</p>	<p>%100 (2)</p> <p>Konstruktibismoan oinarritzen direla zentzu bezala: ikasleen motibazioa, interesak, heldutasuna, ebpluzioa, ... errespetatzen direla</p>	<p>%50 (1)</p> <p>Suposatzen da errealitatearekin lotuta dagoela</p> <p>%50 (1)</p> <p>Sistema globala delako, H.H. eta L.H.an hedatua dagoelako, aniztasuna errespetatzen duelako eta osotasunean hezitzailea delako.</p>	<p>%50 (1)</p> <p>Eraitza onak izaten dituztela</p> <p>%50 (1)</p> <p>Neurona arteko konexio asko lortzea ikasketa prozesuan erraztasunak lortzeko</p>	<p>% 33,33ak (2)</p> <p>konstruktibismoa jarraitzea, %16,66ak (1) errealitatearekin lotuta egotea, %16,66ak (1) sistema globala izatea HH eta LHko etapan artean lotura ezartzen duena, %16,66ak (1) emaitza onak eskuratzea eta gainontzeko % 16,66ak (1) neuronon arteko lotura asko lortzea ezratzea ahalbidetzen duela.</p>

9.3. ERANSKIN III: Laginaren testuinguru soziolinguistikoaren inguruko galdetegia

IKERKETAN PARTE HARTU DUEN LAGINAREN EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKOAK

GURASOAK

Gurasoen batz besteko adina (tartea ematearekin nahiko, esaterako: 37-41 urte bitartekoak) → ----- urte bitartekoak

Gurasoen ikasketa maila → % -----ak unibertsitate edo goi mailako zikloko formazioa du eta %-----ak ez du ikasketarik edo ikasketa maila baxuagoa du

Seme-alaba kopurua → %-----ak seme-alaba bat baino gehiago du eta %-----ak seme alaba bakarra

Etxean ala etxetik kanpo lan → gurasoen %-----ak etxetik kanpo lan egiten du eta %-----ak etxean lan egiten du

Guraso atzerritarrik? → ----- guraso atzerritar daude. Zein da beraien ama hizkuntza? → -----

Gurasoen ama hizkuntza? → gurasoen %-----ak ama hizkuntza euskara du eta %-----ak gaztelania du ama hizkuntza

IKASLEAK

Gelan dagoen haurrak dituen neba -arrebak bera baino... → %-----ak berak baino neba-arreba gazteagoak ditu eta %-----ak neba-arreba nagusiagoak ditu

Haurren ama hizkuntza? → umeen %-----ak euskara du ama hizkuntza eta %-----ak gaztelania du ama hizkuntza

IRAKASLEAK

Irakasleen adina → Irakasle 1: ----- --urte Irakasle 2: -----urte

Momentu honetan irakasten duzuen metodologian dituzuen esperientzia urteak → Irakasle 1:----- Irakasle 2:-----

Ama hizkuntza → Irakasle 1: ----- Irakasle 2:-----

Kalean erabiltzen duzuen hizkuntza → Irakasle 1: ----- Irakasle2:-----

9.5. ERANSKIN V: Behaketa txantiloia

IKASTETXEAREN IZENA:	
IRAKASLEAREN IZENA:	GELA:
Irakasleek planteatzen dituzten jarduera motak	
Idazketa helburu komunikatiboetan erabiltzeko sortutako aukerak eta egoerak	
Landutako testu generoak	
Umeei modu aktiboan parte hartzeko eskaintako aukerak	
Ume ezberdinen parte hartze orekatuak bilatzeko esku hartzerik egiten den	
Erabilitako taldekatze motak	
Erabilitako ebaluazio sistema	
Haurren huts egiteen aurrean hauei ematen zaien trataera	


9.6. ERANSKIN VI: Haurren idazkiak

9.6.1. Avellaneda ikastetxea


a) 2. fasea: idazketa ideografikoaren fasea



b)4. fasea: idazketa silabiko-alfabetikoaren fasea



BORKA ASTE LIEHENATO
TXIKIGUNEANEONAS






GORKA


ASTELEHENA 10

ARKIETZEKINGON MAIZ-IRATILUXUE











ASTLEFFENA-10-ALEX
AITI TELENETZ EA EGON AIS
XABIER LEKIN ETAA ITAETALE
PASATUDUTSUPERONDOC ADUTMAKA
ETA LULENLEKIA

R
R
R



IKER

ASTELEHENA 10

GAZTELUA
PARKEANEGONASAITAREKIN




ASTELEHENA 10 - KERAL

ETXEANEGONAKIS SABAL TANOPARIK ETA
RREGALATUDUTE ETXEABARBIRENA ETA
EREBAI TOPMODEL ETA MOSORROBT
PIRTAESARENA



c)5. fasea: idazketa alfabetikoaren fasea










UDANE ASTELEHE NAIG
ETZEANE GONNAISETA
PKUSIDUK PELIKULABAT
ARRATE ETAPASATUDUT
SUPERONDO ETA-AITA
REKIN ETA-AMA REKIN

UDANE









9.6.2. Etorkizuna ikastola

a) 3. fasea: idazketa silabikoaren fasea

ARRATE

KAAINE

EONAI 

IRATIK

UREBETEZ

EONAI





b) 4. fasea: idazketa silabiko-alfabetikoaren fasea













c) 5. fasea: idazketa alfabetikoaren fasea:




ARATZ

IGERILEKUAN
NAIZ

JOAN






IRATIG.


NIKEGON : NATS SUAITXTAK
LANDAXTEN NIREPARKEAN



9.6.3. Eguzkibegi ikastola

a) 2. fasea: idazketa ideografikoaren fasea












b) 3. fasea: idazketa silabikoaren fasea











E N E K O I .
N U A N E X R N A M N S
E H E A N T E R A U N I










c) 4. fasea: idazketa silabiko-alfabetikoaren fasea















d) 5. fasea: idazketa alfabetikoaren fasea











9.7. ERANSKIN VII: Haurren idazkietatik eskuratutako emaitzen taula

IDAZKETAREN FASEAK	IKAS ZENTROAK			GUZTIRA	ONDORIO NAGUSIA
	EGUZKIBEGI IKASTOLA	ETORKIZUNA IKASTOLA	AVELLANEDA IKASTOLA		
	23 umeren idatziak	13 umeren idatziak	19 umeren idatziak	55 umeren idatziak	
1. Fasea: idazketa bereizi gabearen fasea					
2. Fasea: idazketa bereiziaren fasea	Diego / Eleder / Kepa / Jon / %17,4 (4)		Marcos %5,3 (1)	%9,09 (5)	Talde honetan, soinuen eta idatzitako grafien arteko harreman grafofonikorik eraten ez dituzten haurrak sartu ditugu. Haurrek, ezagutzen dituzten letrak modu ezberdinetan konbinatuz idazten dute idatzi nahi duten guztia. Transkripzioa egitea beharrezkoa da idatzi dutena ulertu ahal izateko.

<p>3. Fasea: idazketa silabikoaren fasea</p>	<p>Eihartze / Sare / Asier / Ander Mo / Andde / Eneko I / Eneko P. / Gilen</p> <p>%34,8 (8)</p>	<p>Arrate / Irati R.</p> <p>%15,3 (2)</p>		<p>%18,2 (10)</p>	<p>Talde honetan, jada ahozko hizkuntzaren eta idatzitako grafien artean harremana dagoela konturatu diren haurrak sartu ditugu.</p>
<p>4. Fasea: idazketa silabiko-alfabetikoaren fasea</p>	<p>Ane / Nerea / Iratxe / Maialen Z / Naia / Ander Ma.</p> <p>%26,08 (6)</p>	<p>Aitor / Ekaitz / Irune / Lander / June / Beñat</p> <p>%46 (6)</p>	<p>Ander / Gorka / Paula / Gorka / Alba / Endika / Arkaitz / Ariane / Keral / Iker / Alex / Aider / Andrea /</p> <p>%68,4 (13)</p>	<p>%45,45 (25)</p>	<p>Talde honetan, silaba bakoitzeko grafia bat baino gehiago idazten dituzten haurrak sartu ditugu.</p> <p>Fase honetan hurrek dituzten zailtasunik handienak, fonema guztiak ondo identifikatzea eta fonema guztiak nola idazten diren jakitea dira.</p>
<p>5. Fasea: idazketa alfabetikoaren fasea</p>	<p>Markel / Amaiur / Maiane / Maialen C. / Jimena</p> <p>%21,73 (5)</p>	<p>Aratz / Eneko / Lezo / Irati G. / Oihan</p> <p>%38,7 (5)</p>	<p>Saioa / Iraia / Oxane / Udane / Arhane</p> <p>%26,31 (5)</p>	<p>% 27,27 (15)</p>	<p>Talde honetan, azterketa alfabetiko zurruna eta soinu eta grafien arteko korrespondentziak ondo ezagutzen dituzten haurrak sartu ditugu. Idatziaren kodea ondo ezagutzen dute.</p>


9.8. ERANSKIN VIII: Etorkizuna ikastolako (Amara Berri sistema)
inprimategiko idazketa lana

Inprimategiko lana, irakaslearen gainbegiratze pean gauzatzen da, pausu konkretu batzuk jarraituz. Testuingururik gabeko eta letra xehez idatzitako hitzen eta ez esaldien idazketara mugatzen da txoko honetako lana. Ondokoak dira jarraitu beharreko pausuak:

1. Idatzi beharreko hitza dagokion irudiarekin lotzen da.
2. Hitza, egurrezko letrekin osatzen da.
3. Irakaslearen zuzenketak eta gainbegiratzea jasota, tanpoiekin egindako estanzazioez idazten da.
4. Tanpoien bidez idatzitako eredu bidezko kopia eginda, aukeratutako hitza arkatzez letra xehez idazten da.




1. *pausoa: hitza eta irudia lotzea*




2. *pausoa: egurrezko letrekin osatzea*



3. *pausoa: tanpoiekin idaztea*



autobusa



autobusa

4. **pausoa:** eredu bidezko kopiazea arkatzez eta letra xehez idatzia